



ARGIA



Prekarietatearen aurkako borroka
BAKARRIK EZIN DA
LAGUNEKIN BAI

» JANARI MERKEA: AGROINDUSTRIAREN ESKLABOAK LANEAN, EUROPAKO MASA ELIKATZEKO

» IRATXE OSORO: "ANOREXIAZ IKERTZAILEEK EGITEN DUTE BERBA, BAINA GUK GEUK EZ"

» OSCAR ESCUDER: "KATALAN HIZTUNON ALDE EGONGO DEN ESTATUA NAHI DUGU"





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Esklabo lana janari merkeak ekoizteko europarentzat

IRITZIAK

- 17 Estitxu Garai
- 18 Endika Alabort
- 19 Iñaki Odriozola
- Itziar Bardaji
- 20 Bea Salaberri



Lurraldebuseko aldaketek soilik ez, hura garatzeko moduak ere kritika zorrotza izan du eta "udalekin eta herritarrekin ez kontatu izana" salatu dute hainbat hautetsik.

SAKONEAN

- 12 | Iratxe Osoro: "Anorexia duten gehienak besteez arduratzen diren emakumeak dira" / Danele Sarriugarte
- 22 | Langabezia ez gaude gustura, lanean ere ez du / Jon Artza
- 28 | Belarri finetik soinu oneko joarea / Iñaki Sanz-Azkue
- 32 | Gipuzkoako autobus zerbitzuetan murrizketak? / Igor Agirre
- 35 | Plataforma per la Llengua-ko lehendakari Oscar Escuderrekin elkarrizketa / Onintza Irureta
- 43 | "Genero praktikak" ikastaroa: Gorputzak ehuntzen / Mirari Martiarena
- 46 | Telesail elkarreragileak / Gaizka Izagirre

AZALEKO IRUDIA:
IRUÑERRIKO LANGILEEN BABES SAREA

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.

Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza.

Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asumendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador.

Argazkilaria: Dani Blanco.

Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.

Lapurti, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

Hitza eta erabakia etxean gatibu

Politikan ez da gauza politikan zioen Lazkao Txikik. Seguruena katalan independentistek arrazoia emango liokete urtarilaren 30ean Parlamentuaren inguruan bizi izandakoa eta gero. Beste behin ere, kupula politiko batek erabaki zuen gehiengoak boz bidez presidente hautatukoa baztertzea. Eta agian betiko. Alderdi independentisten batasuna urratu zuten, eta larriagoa dena, milaka herritarren artean frustrazioa eta noraeza zabaldu. Espainiako politikagintzan, baita Euskal Herrikoan ere, ohikoa da politika egiteko era bertikala: gutxi batzuek bulego batean erabakitzea herritarren izenean. Espainiako politikagintzan txapeldunak izan dira, baina "politika zaharra" uste baino zabalduago dagoela agerian geratu da. Batasuna, desobedientzia, abilezia eta determinazioa eskutik joan direnean azkartu da prozesu independentista. Baina horretarako, prozesuaren motorrak, herritarrek, hitza eta erabakia eduki behar dute.

Argazkia: Jordi Borràs - Testua: Axier Lopez





Iñigo Martinezek Reala agurtzeko mezua euskalkian idazteak zeresana eman du.



“Kontua erabilpen eremuak dira. Jendeari normala iruditzen zaio gaztelania batuan egin eta alboan euskalki idatziaz egitea. Hori euskara bigarren maila batean jartzea da”

@theindezents



“Martinezena defendatzeko ‘autentizitatea’ eta ‘gatza’ bezalakoak erabiltzen dituenak zer adierazi nahi du, batuan ari direnak ez direla autentikoak?”

@boligorria



“Sekula ez dut ikusi halako zalapartarik batuarekin antza handia duten euskalkiekin”

@tipitto



“Martinezek bere nortasun linguistikoa azaldu du publikoki, ez besterik, eta euskalkia horrekin dator. Hori ez doa euskararen normalizazioaren kontra”

Aintzane Elordui



QUIZNEWS

Polemika Pisan, erraustegiak minbiziak eragin dituela-eta

Zero Zabor

@zero_zabor

Polemika handia bizi dute asteotan Italiako Pisa hirian, frogatu denean Ospedaletto herrian daukan erraustegiak minbiziak eragin dituela. Errausketaren aurkako taldeek eta zenbait alderdi politikok aspalditik salatzen zuten kontua izan arren, CNR Ikerketarako Kontseilu Nazionalak berrikitan plazaratutako azterketa epidemiologikoak harrotu ditu hautsak. Pisako Udalak erabaki du erraustegia ixteko prozedurari ekitea.

Pisako udalerria bere osotasunean arakatu duen ikerketak dioenez, “aztertu diren hiru kutsadura iturri nagusien artean, hau da, errausketa, industria guztia eta autoen trafikoa, arrisku oharrak

ugarrienak agertu dira erraustegiaren kasuan eta, aldiz, autoen trafikoak eragindako kutsadurarenak esporadikoak dira”. Zehaztasunetan sartuta, erraustegiak eragindako gaixotasunen ugaritzeak CNRko ikerlariak aurkitu dituzte: heriotzak ugaritzen dira %79 sistema linfatikoko eta odoleko minbizietan eta %21 zirkulazio sistemako gaixotasunetan. Emakumeetan hilkortasun tasa %152 handitzen da arnasbideetako gaixotasun akutuetan. Bestalde, ospitaleratze beharrak ugaritu egin dira sistema linfatiko eta odolekoaren tumoreengatik, leuzemiagatik, Ez-Hodgkin linfomengatik, eta emakumeen artean trakea-bronchio-biriketako tumoreengatik.

Txostenak aztertu ditu Pisako udalerrian 2001etik 2014ra gutxienez urtebetez bizi izan diren 132.000 lagunen egoerak.

“Gora ulertu gabeko identitateak eta gorputz arraroak”

ENEKO SAGARDOY, AKTOREA

Besteak beste, “Migel Joakinekin identifikatuta sentitzen diren pertsona guztiei” eskaini nahi izan die Eneko Sagaridoyk aktore berri onenaren Goya saria, “ulertuak sentitzen ez direnei, ulertu gabeko identitateei eta gorputz arraroei. Gora!”, gehitu du. *Handia* filmak Espainiako zine akademiaren Goya sarietan 13 izendapen zeuzkan eta 10 sari lortu ditu. Euskal zinemarentzat gau historikoa izan dela esan daiteke, saritan aurrekaririk ez baitauka Jon Garaño eta Aitor Arregiren filmak lortu duenak. Aktore berriaz gain, jantziak, muntaia, ekoizpen zuzendaritza, zuzendaritza artistikoa, argazki zuzendaritza, makillajea, efektu bereziak, gidoi originala eta musika originala saritu diote *Handiari*. **2018-02-03**



FAUNA PUBLIKOA

**"Delitu larriak egin izana
leporatu dioten pertsona batek
ezin du espero seguru eta
zigorgabe geratzea hauteskunde
prozesu batetik pasa ostean"**

**Felipe González, Espainiako presidente ohia,
Carles Puigdemonti buruz (El Mundo)**

Ongiaz eta gaizkiaz haraindi



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Zinismo hitzaren definizioaren ondoan Felipe González-en esaldi hau agertuko da, noizbait, hiztegiren batean. Denbora kontua da. Edo agian ez. Agian denborak garbitu egingo ditu Espainiako presidente izan zen garaiko estatu-krimenak. Lixibak eta zenbait hedabidek mirariak egiten dituzte horrelako delituekin: jada ez da geratzen 1985eko odol-arrastorik Baionako Monbar hotelaren aurreko espaloian; Hendaian, Peru eta Steinen autoa aparkatuta zegoen lekuan ez duzu bala-zorrorik aurkituko; Juan Carlos Garcia Goenaren autoaren burdin lehertuak ere ez. Desagertu dira: hildakoak, krimenen arrastoak. Errudunak zigortzeko aukerak ere bai, segur aski.

Ia atzo goizean diru publikoz atentatu bat ez baimendu izanagatik damututa agertu zen presidente ohia: "Denak saltarazi eta burua mozteko aukera dago. Erabakia bai ala ez da. Sinplifikatuko dut, esan nuen: ez. Oraindik ez dakit zuzen jokatu nuen". Leporatu zioten zerbait hori esan zue-nean? Zabaldutako artxibatuta zegoen kasuren bat? Hori publikoki adieraztea ez da delitu-zantzua?

Nire buruari galdetzen diot zer pentsatzen ote duten GALEk hildako pertsona bakoitzaren senideek González besteen ustezko kulpei buruz hizketan entzuten dutenean, ongiaren eta gaizkiaren gaineretik balego bezala, zigorgabetasuna bezalako terminoak arintasun jasanezin honekin erabiliz. Erreferendum bat deitu zuen presidentea justiziarren aurrera eramateaz ari da, estatua "estoldetan ere" defendatu zuen presidentea. Eta González bezalako figuretan laburbiltzen da Kataluniako independentismoaren aurka indarberritu den Espainiako estatu-proiektua. Ezagutzen genuen, baina inoiz ez dago soberan gogora ekartzea zein iraingarria izan daitekeen. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



PILULA GORRIA
HARTZEN BADUZU, KITTO.
IRATZARTZEAN,
SINETSI NAHI DUZUNA
SINETSIKO DUZU...

...URDINAZ,
MARABILLIN MUNDUN
GEATUKO ZA, TA NEUK
ESANGOTSUT
KONEJUN ZULU
NOARTE AILATEN
DAN...!



ANALISIA



Administrazioak izan baditu mekanismoak, ikastetxe batzuetan eta besteetan ikasleen harrera orekatzeko.

Klase gatazka hezkuntzan



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Aurre-matrikulazio garaian gauden honetan, gogoeta interesgarria egin du Aitor Etxarte Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakariak *Berrian*: aporofobiaz mintzatu da, pobreenganako fobiaz, edo nola inklusioaren eta aukera-berdintasunaren alde azaltzen garen publikoki, baina gero datuek kontrakoa dioten. Beharbada horregatik, herri eta hiri askotan ikastetxe *markatuak* daude oraindik, kasik ghetto bihurtuak, non profil jakineko eta maila sozioekonomiko ahulagoko familien seme-alabak diren nagusi. Eta maiz, segregazio eta pilaketa artifizialek muturreko egoerak eta zailtasunak sortzen dituzte, ghettoak are ghettoago bilakatuz. Ziurrenik, ez da bidezkoa gurasoak horren erantzule egitea, administrazioak berak izan badituelako mekanismoak, ikastetxe batzuetan eta besteetan ikasleen harrera orekatzeko, eta baliabideak behar bezala banatzeko.

Etxartek dioen moduan, azken ikerketek ere argi utzi dute: ikasle bakoitzaren testuinguru sozioekonomikoak baldintzatzen du haren ibilbide akademikoa.

“Nafarroan, DBHko 4. maila errepikatzen duten ikasleen kopurua, adibidez, %30ekoa da testuinguru sozioekonomiko baxuko ikasleen artean; eta %1,4koa soilik klase altukoaren artean”. Eta hain juxtu, eskola tresna aproposa da egoera horri buelta emateko, eskola da gizarte kohesiorako oinarria eta haurren garapena eta aukera-berdintasuna bermatzeko bitartekoak jarri ditzakeena. “Ikastetxerik onenak dira jaiotzetik ezarritako determinismoa apurtzeko gaitasuna dutenak”, dio Etxartek; eta gehituko nuke gizarte/hezkuntza sistemarik onenak direla ikasle guztien aukera-berdintasuna bermatzeko gai direnak, ikaslearen “porrota” eskolaren ezina delako, gizarte sistemaren ezina. Zer esanik ez, maila sozioekonomiko baxuko ikasleetatik harago, maila sozioekonomiko baxuko ikasgela eta ikastetxeak ugaritzen ari direnean, bazterkeriara kondenatuak. *Status quo*a aldatzeko erreminta eraginkorra da eskola, baina horretarako, borondate politikoa behar da, baita aldaketa hori nahi eta bultzatuko duen gizartearen borondatea ere.

EKONOMIAREN TALAIAN

Presio taldeak kontrolatu



Juan Mari Arregi

Izan estatubatuarra, txinatarra edo europarra, izan Espainiakoa, Frantziakoa edo Euskal Herrikoa, gobernu denak daude lobbyek edo presio taldeek inguratuta. Kasu askotan, erabaki politiko handiak ez dira hartzen hemizikloetan mikro baten aurrean, baizik eta gelatxo, korridore, kirol klub eta jatetxeetan egiten diren ezkutuko bileretan. Talde antolatu horiek euren interesak soilik defendatu nahi dituzte itzaletik politika baldintzatuz; horiek dira lobbyak, ia gehienetan etekin ekonomikoaren bila dabilenak.

Bada, Nafarroako Gobernua, arrazoiz, oso kezkatuta dago lobbyen funtzionamenduarekin, eta presio talde horiek kontrolatu eta kate moztzean lotu nahian dabil. Nafarroako Parlamentuan lantzen ari diren proposamenak herrialde anglosaxoietan egiten dutena kopiaatzea dakar: existitzen diren presio talde guztiak erregistratzea. Talde horiek publikoekin egiten beharko dituzte zein bilera mantentzen duten ordezkari politikoekin. Eta alderantziz, politikariek ere euren agendak publikatu beharko dituzte jende guztiak jakin dezan zeinekin ari diren biltzen. Lobbyen presioa delitu izan daiteke influentzia-trafikoagatik. “Ate birakari” delakoak ere arriskutsu izan daitezke, politikari eta ordezkari ohiek hartzen baitute parte ia gehienetan, eta azken batean “diferituan” egindako eroskeriak baizik ez dira.

Ea Nafarroako Gobernuak lortzen duen lobbyen erregistro hori osatu eta agenda politiko publiko bat edukitzea, Gardentasun Legeak dioen bezala. Euren interes ekonomikoaren mesedetan araudi eta legeak aldatzea bilatzen duten presio taldeak kontrolatzeko modu eraginkorra litzateke. Aurreko nafar foru gobernuak ez ziren preseski eredu izan arlo horretan... orduko lobbyek hitz egingo balute!



ERRAN.EUS

Joaldunak Ituren, Aurtitz eta Zubietan

NAFARROA. Ohiko moduan, inauteriei ongiatorria Ituren, Zubietan eta Aurtitzen egin diete lehenik. Inauterietako astelehenean, goizean gosalduta, joareak jantzi eta Zubietako joaldun, moztar eta karrozek Iturenarako bidea hartu zuten. Bidean, aurtiztarrekin elkartu eta Iturenen elkartu ziren denak. Asteartean, Zubietan bildu ziren. Animalien erabilera salatu dute talde batzuek, eta pankarta esanguratsuak ikusi ahal izan dira Iturenen, *Errespetatu gure inauteriak edota Iturenen ere animalien alde. Ergelak sobrante daude gisakoak.*

Mozal Legea semearen bila espetxera joateagatik

Argia

Mari Paz Casanova Mozal Legea erabiliz zigortu dute abuztuaren 24an Egoi Alberdi semea espetxetik irten behar zen egunean atarian haren zain egoiteagatik, "komunikatu gabeko kontzentrazioa" egotzita.

Gertaturikoa

Madrilgo Navalcarnero espetxeko atarian Casanova zegoen, beste hainbat pertsonekin, semea libre noiz gertuko, eta poliziak identifikatzeko eskatu zion. Casanovak erantzun zion ez zela inongo kontzentrazioa eta semea askatzen zuten unean joan egingo zirela.

Gutuna

Hilabete batzuk geroago gutuna iritsi zaio, "behar bezala komunikaturik ez zegoen kontzentrazio bat" egin zela Navalcarneron eta bera identifikatu zela poliziaren aurrean hanga arduradun. 100 euroko isuna jarri diote preso-ohiaren amari.

Egoi Alberdi

Egoi Alberdi Donostiako herri harresiak inguraturik atxilotu zuten, Segiko kide izatea egotzita. Torturatu egin zutela salatu arren, sei urtetik gora egin ditu espetxean, azken lauak Navalcarneron. Bisitan joan direnek 976 kilometro egin behar izan dituzte joan-etorrian.

KLIMA ALDAKETA



%86

Europarren %86k pairatuko ditu epe laburrean uholdeen kalteak klima aldaketaren ondorioz, kasurik arinenean; hau da, tenperatura 1,5 gradu igotzen bada.

3 gradu igotzen bada tenperatura (eta ageriko arriskua da), herritarren %123k jasango ditu uholdeak.



GREBA FEMINISTA

"Emakumeek planto" lelopean martxoaren 8an egingo den greba aurkeztu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Lau esparrutan jarriko dute fokua: zaintza greba, lan greba, kontsumo greba eta ikasle greba. Bi lanuzte iragarri dituzte.



GREBALARIAK

Bizkaiko Aldundiko Ogasunak "erresistentzia kutsaren" laguntza jaso duten grebalariei informazio pertsonala eskatu die sindikatuak, jakiteko ea beharrezko erretentzioak egin dizkieten. Hala, greba erabakigarriak irabazteko gako izan den tresnaren bihotzera jo dute.



BANKU ETIKOA

Mañariko Udalak Banco Sabadellen zituen 209.201 euroak Fiare banku etikora eramatea erabaki du. "Gizartea eraikitzeko bidean -balio justu, solidario eta humanoak sakontzeko bidean- gure harritxoak jarri gura izan dugu", adierazi dute.

Esklabo lana behar da janari merkeak ekoizteko Europako masarentzat



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Kopa bat ardo baino merkeagoko oilaskoa, hutsa balio duen saltxitxa, Andaluziatik edo Marokotik etorrita ere bertako sagarra baino gutxiago kostako zaizun marrubia... nola litezke hain prezio merkeetan supermerkatuan? *Low cost* elikagaiok ezkututzen dituzte, banatzaileek baseritar txikiei egiten dieten *bulling*-az gain, nekazaritza industrialaren katean ari diren milaka langileren miseriako soldatak. Esklabo lanean dihardute Mediterraneoan... baina baita Alemania aberatsean ere.

“Ekonomia neoliberalaren joko arauekin, janariak merke egon daitezen zurrupaketa eta prekarietatea egon behar dute”, egia garden horrekin egiten dio sarrera *Soberanía Alimentaria* aldizkariak 30. zenbakia, argituz zurrupaketa eta prekarietate hori ezartzen dizkietela ekosistemei, animaliei, landareei, kulturei eta, zalantzarik gabe, pertsonei. Zampaketen adibide zehatzak eskaintzen ditu, Europako herritarrentzako janari merkeen ekoizpen eta transformazio kateetan ari diren langileenak.

GRAIN erakunde altermundialistak eta Via Campesina mugimenduak gaztelaniaz plazaratutako agerkariak editorialean dioenez, zampaketak itxura ezberdinak erakusten ditu nozitzen dituzten pertsonen generoaren edo jatorriaren arabera eta oso ezberdin ageri dira munduaren Ipar aberatsean edo Hego txiroan, “baina gaur egun migrazioak eta globalizazioa direla medio, bada iparraldeak hegoaldean eta hegoaldeak iparraldean”. Izan ere, nork espero luke aurkitzea Alemania txit aberatsean Grezian ere pertsegitzen diren lan baldintzak?

“Esklabo lana Alemaniako haragi industrialian” aurkeztu du Guido Grüner ALSO erakundearen Saxonia Behereko arduradunak. ALSOk 35 urte daramatza bere burua *estatu sozial* izendatzen duen Alemanian langabetu eta prekarioek nozitzen dituzten bizi baldintzak salatu eta aldatzeko lanean. 2008an hasi ziren eskualdeko nekazariekin el-

karlanean, hauek esne erosle handiei hornidura-greba egin zieten. Elikagai industrialen katean ari diren langileei aholkularitza juridikoa eta babesa eskaintzen diete.

Saxonia Beherean laguntza eske datzkien gehienak hiltegi handietako langileak dira, marka ezagunentzako oilaskoak (Heidemark, PHW/Wiesenhof...), txerrikiak (Danish Crown, Tönnies, Vion, Westfleisch) edo txekor haragien ekoizten ari direnak. Mundu osora esportatzen dute enpresok eta Alemanian beren okelak saltzen dituzte Aldi, Edeka, Lidl, Rewe eta beste supermerkatuek, beren prezio apalekin txikizkako salmenten %90etik gora kontrolatuz.

2013an sindikatu, hainbat talde kristau eta besteren laguntzarekin langileok egindako protesten ondorioz, Alemaniako estatuak neurriak hartu zituen lanaren arauketan, tartean okela industriako langileen alorrean: gutxieneko soldata orduko 9 eurotan finkatu, bizileku kolektiboetan dutxa eta bestelakoak bermatu... “baina urteon ondoren esan dezakegu –dio Grünerrek– estandar horiek ere ez direla betetzen”. XXI. mendea iritsita, ugazabak sekula baino errazago dauka edozein zirrikitu baliatzea.

Hasteko, langileek frogako aldi bat igaro behar dute, eta hor babesik gabe aurkitzen da, kexarik txikiena azaldu edo gaixotuz gero kalera joateko beldurrez. Baina kontratua lortuta ere, lan orduak inork ez dituela kontrolatzen dio Grünerrek, aholku eske etortzen zaiz-

kiela hilabeteen 200dik gora ordu –“sarrantan 240 eta baita 280 ere”– sartzen dituzten langileak, astean sei egunez 14na orduz ari direnak. Ez nolanahiko beharretan, frigorifikoetan, zama handiak mugitzen, erritmo bortitzetan...

Langilea legez konpainia handientzat ez baina aldi baterako lanen kontratentzako ari denez, edo kontrata baten azpikontrata batentzat... norengana jo kezatzera, gaixotasun atsedena eskatzera, edo ordutegi zehatza zein den galdezka? Babesik ez edukitzen hasita, asko dira kontratu bat sinatzearen truke enkargatuari 500 euro pagatu beharrean aurkitu direnak. Eta soldata minimoa nola bermatu ugazabak kalkulatzeko baldin badu ez orduka baina ekoiztutako ale edo kiloan arabera? Nork kontrolatzen ditu atzeritik etorrita taldeka bizitzera behartutako langileoi enpresek alokatzen dizkieten logelen prezioak?

Desgaraiko marrubien mamia

Hegaztien txertatze eta garraioan ari diren langileen jardura ere tamalgarrigoa da, Gruido Grünerrek azaldu duenez. Saxonia Behereak 300 milioi hegazti hazten ditu urtero granja handietan, hiltegi industrialetara eraman behar direnak.

Furgoneta eta mikrobusetan eraman dako *koadrillak* doaz etxaldez etxalde milaka hegazti harrapatu, karioletan sartu eta kamioietan zamatzeko lan gogorrera, janzki egokirik gabe gehienetan, lana eskuz eginez hautsez eta simau-





C. Saezen argazkian, emakumeak marrubiak biltzen fruituz eta lorez mukuru dauden landareen artean, Andaluziako Huelvan. Asko Marokoko landagune txiroetatik eraman dituzte, eta bere familien bizimodua hobetzeko diru iturri erakargarria nagusiekiko menpekotasun itzelaz pagatzen dute. Horiek bildutako marrubiak, gero, pabilioi handietan beste emakume batzuk –lan baldintza gogorretan ari direnak hauek ere– sailkatu eta ontziratuko dituzte.

rraren amoniakoz betetako biltegi ilunetan. Kualifikaziorik gutxieneko lana izaki, baldintzarik txarrenak ere langileok jasaten dituzte, sarritan kontraturik gabe, ugazabak lagatako etxebizitza kolektiboetan biziz, errenta garestia jornaletik zuzenean deskontatzen dietela... Ez da kointzidentzia hegazti garraioan ari diren *koadriletako* gehienak etorkinez osatuta egotea.

Alemania-ko gain, *Soberania Alimentaria*-ren dossierak aztertzen ditu Europako bi kasu gehiago: "Almeriako elikagaien manipulazio zentroak barrutik ikusita" idatzi du bertako langile batek L.G. sinadurapean. Juana Moreno Nieto eta Emmanuelle Helliok "Andaluziako eta Marokoko marrubitan ari diren emakume jornaleroak". Carlos de Castro, Alessandra Corrado eta Domenico Perrotta unibertsitateko irakasleek, be-

rriz, azaldu dute nolaz den "migrazioa, hornidura globalizatuzko kateentzako osagai gakoa".

Sasoitik kanpo ekoitzi eta kontsumitzen den marrubi gorriak –martxoa amaitzerako kaletarrak aspertuta egongo dira horiek jatez, nahiz eta hemen go baratze eta pendizetakoa orduantxe hasi loratzen– bere mamian darama elikagaien ekoizpen industrializatu globalaren azalpena. Europako ekoizle gehienak, baita negutegi eraginkorrenekin ari direnak ere, krisian daude Andaluziako Huelvan eta Marokon hazten dituzten marrubiaren konkurrentziari aurre egin ezinik.

Superretan asteotan aurkituko ditugun marrubiok haztearen inguruan nekazaritza eredu oso teknifikatua antolatu da, esportaziorako prestatua, produkzio koste handikoa: pestizida,

ongarri kimiko, negutegien plastiko eta beste azpiegitura, landare emankorren patente... eta oso lotuta dago super eta hiperren banaketa kate erraldoiei.

Eskulan handia ere eskatzen du, ordea. Horregatik aurten ere 60.000 langile *temporero* ariko dira Huelvan eta 20.000 Maroko iparraldean. Gehienak emakumeak. Huelvak dauzkan 10.000 hektarea negutegietan marrubiak landatu, zaindu eta biltzeko behar direnetako asko Marokotik heldu dira, 13 urte arteko umeak dauzkaten amak, 2007an marrubiaren patronalak, Espainiako Enplegu Agentziak eta Marokoko agintariak sinatutako tratua arabera: horrela bermatzen dute sasoia amaitutakoan Marokora itzuliko direla.

Emakume zailduon izerdia daramate superreko marrubi potolo horiek, pestizida koktelaz gain. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Iratxe Osoro

«Anorexia duten gehienak besteez arduratzen diren emakumeak dira»

Arazoi pertsonalak eta sozialak tarteko animatu da Iratxe Osoro jendaurrean anorexiar hitz egitera: batetik, fase bati agur esateko, eta bestetik, gaiaren inguruko isiltasuna hausteko. Hitz egin dezagun, bada.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

**Normalean, kazetariok jo ohi dugu elkar-
rriketatuengana. Kasu honetan, ordea,
zuk egin zenuen nigan. Zer dela-eta?**

Kazetaria baino zerbait gehiago bazara, eta uste dut laguna izanda errazagoa izan zela pausoa ematea: konfiantza daukagu, askotan egin dugu berba gai honen inguruan eta, bueno, momentua iritsi zen. Napoka Iria taldearen agur-kontzertura joan ginenean konturatu nintzen etapa berriak hasteko beharrezkoa dela aurrekoari agur esatea. Inflexio-puntu bat izan zen: erabaki nuen anorexiari agur esatea elkarriketa baten bitartez.

Gizarteari zure esperientziaren berri emateko premia sentitzen zenuen, ezta?

Bai. Alde batetik, maila pertsonalean etapa ixteko beharra nuen, eta bestetik, behar sozial bat sentitzen nuen, zeren anorexia oso gai tabua da: normalean, ikertzaileek egiten dute berba gai honen inguruan, baina guk geuk ez dugu hitz egiten, eta nik uste dut beharrezkoa dela arazo oso ohiko eta normalaz ari garelako. Adituek ez ezik anorexia bizi izan dugunok hitza hartzea oso garrantzitsua da.

Tabua dela diozu, baina era berean, barra-barra hitz egin izan da anorexiar.

Hein batean kontraesan bat da, zeren, azkenean, gai hau egunerokotasunean ikusten dugu, kasu pila bat daude, eta asko hitz egiten da horri buruz, baina soilik morboa sortzen duen aldetik. Gero errealitateari ezikusia egiten zaio. Gaixotasunaren errealitatea da tabua. Jendeak erraz komentatzen du hau edo beste anorexikoa dela, baina gero lana bilatzeko orduan, ikasketak egiteko orduan, bidaiatzeko orduan sortzen diren egoerak tabu bihurtzen dira, eta diskriminatu egiten dugu pertsona.

Zer da anorexia zure hitzetan?

Nik uste dut anorexia gauza asko direla. Alde batetik zure espazioa mantentzeko era bat da. Zure bizitzan nahi beste sar daiteke jendea, baina jaten duzun horretan ez, orduan, jendeak zure espazioa hainbeste inbaditu duenean, zure espazioa zaintzeko era bakarra edo bakarrenetako bat izan daiteke elikadura.

Beste alde batetik, errebelatzeko era bat da. Hainbat terapeuten arabera, adibidez, Kalkutako Teresa anorexikoa zen. Orduan, helburu bat lortu nahi du-

zunean, batzuetan era desegokian edo zure buruari begiratu gabe egiten duzu, beste erarik ez daukazunean, zure aurka erabiltzen duzun metodo bat da.

Batez ere emakumei eragiten die anorexiak?

Anorexia dutenen edo izan dutenen ehunekoa handiena emakumeak dira, eta ez da kasualitatea, gainera molde jakin batekoak dira gehienak: besteez arduratzen diren emakumeak, baina azken batean beren burua alde batera uzten

Iratxe Osoro Vitores

1989, Elgoibar

Gizarte-hezkuntzan diplomatua da eta beste hainbat master eta ikasketa egin ditu alor horretan, hala nola droga-menpekotasunari eta beste menpekotasun batzuei buruzko masterra eta sexu-heziketari eta familia esku-hartzei buruzko ikasketak. Gaur egun, gizarte hezitzaile dabil, behar bereziak dituzten pertsonekin.



dutenak. Kate Millettek esan zuen mai-tasuna izan dela emakumeon opioa, eta horri tiraka, uste dut orokorrean patriar-katua izan dela gure opioa, eta gure dro-gak izan direla estetika, otzantasuna...

Txikitatik esan digute nolakoak izan behar dugun, barbiak eman dizki-gute, besteak zaintzen erakutsi digu-te, eta gure burua, berriz, alde batera utzi dugu. Anorexiaren harira ezagutu ditudan kide gehienak medikuak, ira-kasleak, hezitzaileak dira: besteei asko ematen dietenetakoak. Baina zuk ez ba-diozu zure buruari behar duena ematen, besteei ere ezin diezu eman.

Zer estereotipo dago anorexiaren ingu-ruan?

Anorexia lotu ohi da kapritxo batekin, modeloekin... Jendeak uste du argalta-sunari lotutako gaixotasun bat dela, eta askotan ez dauka zerikusirik horrekin. Nik ezagutu ditut kideak bulimia zeu-katenak eta 100dik gora kilo pisatzen zutenak, orduan bi gauzak ez daude lo-tuta: gauza bat da fisikoa eta beste bat da obsesioa edo gaixotasuna.

Orduan, obsesio hori al da muineko ara-zoa?

Azken batean, egoerei aurre egiteko era bat da. Nik beti esaten dut denok dau-kagula adikzioaren bat, zuk azterketak amaitu eta lehenengo gauza parranda egiten duzu edo beste bat doa makina-ra jolastera, arazo bat daukanean beste batek negar egiten du... Bada, janariak ere momentuan balio dezake horretar-ako, igual oso urduri zaude eta txokola-te mordoa jaten duzu lasaitzeko, eta eskuetatik joaten bazaizu eta arazo bat daukazun aldiro gauza bera egiten ba-duzu, bada bulimia eduki dezakezu. Ez da hain ezberdina asko-asko jatea eta ez ezer jatea. Anorexia eta bulimia eskutik doaz, azkenean ildo iguala da. Gauzak gestionatzeko edo zure arazoetan ez pentsatzeko edo mila gauzatarako zure irtenbidea izan daiteke ez jatea, eta gai-nera horrekin jendeak txalo egiten badi-zu eta esaten badizu oso guapa zaudela, are gehiago indartzen dizu jarrera hori.

Sakoneko hainbat arrazoi aipatu ditugu orain arte; zerekin identifikatzen zara zu?

Nik uste dut anorexia badela modu bat norberak nahi duena lortzeko. Nik beti nahi nuen familia perfektua eduki, kua-drilla perfektua, bikote perfektua, eta

momentuan balio izan zidan, azkenean lortu bainuen nik nahi nuen. Arazoa da zer gertatzen den hori dena jausten zai-zunean. Galtzen hasten zarenean, ikus-ten duzu inguruak alde egin dizula eta bakarrik zaudela zure buruarekin, eta lortu duzun guztia gal dezakezula egun batetik bestera. Ez da oinarri sendo bat.

Zein izan da zure bidea anorexiarekin? Oker ez banaiz, Bartzelonako zentro ba-tean egon zinen.

Anorexiaren tratamenduak integrala izan behar du, zeren alde batetik landu behar da pisua edo nutrizioa, gero alder-di psikologikoa eta familiarra, lagunak... Dena bat da. Nik hasiera batean hemen hasi nituen tratamenduak, Euskal He-rrian: lehenengo Gipuzkoan, gero Biz-kaira joan nintzen, ondoren Euskal He-rritik kanpo Santanderrera, gero berriro Iruñera... baina hemen ohitura handia dago alde batetik pisua lantzeko eta gero, beste batetik, jarraipen psikologikoa zuk zeure kabuz egiteko. Horrela oso zaila da. Hiru hilabetean hartzen badituzu 20 kilo, ateratzen zaren momentuan argi dago ez duzula hori mantenduko, ez duzulako prozesua landu eta barneratu.

Bartzelonan, berriz, beste metodo bat erabiltzen zuten. Alde batetik familiaren gaia lantzeko tokia zeneukan, yoga egi-ten zen, gimnasia ez zizuten kentzen (ez zizuten ezer kentzen), eta janariarena apurka-apurka egiten zen. Talde-lagun-tza ere pila bat erabiltzen zen. Azken batean, dena osotasunean hartzen zen eta, poliki-poliki, denbora pasata, kalera irteten zinen. Prozesu hori ez zen egun batetik bestera egiten.

Han, gainera, antzeko egoeran zegoen jendea ezagutu zenuen. Lagungarria izan al zen?

Bai, konturatzen zara ez zarela arazo hori daukan bakarra. Helburua, hein batean, horixe da, bakarrik ez senti-tzea. Kalean jendeak asko epaitzen du ezjakintasunetik, eta zentroan, ordea, jendeak ulertu egiten zaitu. Gero egia da zailena itzultzea dela, zeren igual zu asko aldatu zara, baina jendea ez. Eta hori beste prozesu bat da. Askotan lan gehiago egin behar duzu kanpoan, zen-troan bertan baino. Lehia konstante bat da, honi nola erantzungo diot, beste honi nola erantzungo diot... Kalera ate-ra, eta autobusa hartzeko markesinan horra hor Women's Secret-eko neska

» “Erraza da erantzukizunari ihes egitea, ardura publizitateari egozte, baina azkenean ardura guk daukagu”

» “Gauzak gestionatzeko edo zure arazoetan ez pentsatzeko edo mila gauzatarako irtenbidea izan daiteke ez jatea. Gainera, jendeak txalo egiten badizu eta esaten badizu oso guapa zaudela, are gehiago indartzen dizu jarrera hori”

» “Askotan esaten dut kontraesanen munduan bizi garela: farmaziara zoaz eta depresioaren aurkako botiken ondoan saltzen dituzte argaltzeko pilulak”

katxarro baten irudia, eta zuk pentsa-tzen duzu: “Ni lehen horrela nengoen!”. Eta ez, iritsi behar da momentu bat zu joaten zarena markesina horretara eta iragarkiak ez dizuna axola. Eta hori oso zaila da.

EAEn zer baliabide dago halako arazoei aurre egiteko?

Batetik, ACABE izeneko elkarte dago, Anorexiaren eta Bulimiaren Aurkako Euskadiko Elkarte: aholkularitza eta bitartekaritza lanak egiten dituzte. Nu-trizionista eta terapeuta dauzkate, bai-na ezin dizute jarraipen osoa egin, zeren kasu pila bat dauzkate, etengabe iristen zaizkie, eta ezin dizute arreta pertsona-lizaturik eskaini. Beraiek esaten dizute



zer baliabide dauden, nora jo jakiteko. Ondorengo pausoa: zentro pribatuak edo Osakidetza.

Nik pribatuetan ez dut gauza integralik aurkitu, laguntza puntualak bai, baina gero etxera joan behar duzu eta jan egin behar duzu. Akaso hasieran hartzen bazaituzte, agian lortu dezakezu bideratzea, baina zuloan zaudenean, nik uste dut ia ezinezkoa dela baliabide horiekin ateratzea.

Osakidetzan, berriz, kopuru jakin bat baino gutxiago pisatzen ez baduzu, ekidin egiten dira ingresoak, beraz pisua da irizpidea. Orduan, abiapuntua hori izanik... Ulertzen dut ez dela positiboa izango pertsona bat ingresatzea ez badu pisu oso baxua, baina muga hor jarrita

ez duzu dena bere osotasunean hartzen. Agian ez duzu behar 30 kilotan egotea 24 orduko arreta behar izateko, dena ez da pisua. Lehen esan dizudan moduan, ezagutu dut 100 kilotik gora pisatzen duen bat, eta ingresatuta dagoena, zeren ezin zuen lo egin gauean lau tarta jan barik. Pertsona horrek zergatik ez du behar 24 orduko arreta? Hemen ematen zaio berehalako erremedioa fisikoari, eta arlo psikologikoa aparte doa, baina nik uste dut oso zaila dela horrela bideratzea kontua, hasieran batez ere. Edonola ere, ni orain Osakidetza-ko terapeuta batekin nabil jarraipena egiten, eta oso-oso ondo nago berarekin, askotariko gaiak lantzen ditugu eta orain oso baliagarria zait.

Diskriminazioa aipatu dugu lehen: inoiz diskriminatu zaituzte anorexia izateagatik?

Honekin ez da gertatzen loditasunarekin gertatzen den gauza bera, ez naute kuadrillan diskriminatu *puta flaca* deituz, hori ez da ohikoa, are, aurkakoa gertatzen da, txalotu egiten zaituzte. Baina anorexia daukazula edo eduki duzula baldin badakite gauzak aldatu egiten dira.

Kasu nabarmen bat gertatu zitzaidan: irakasle batek ez zidan utzi praktikak egiten. Terapeutekin egin zuen berba eta esan zioten ni ondo nengoela, alta emana zidatela eta praktikak egin nitzakeela lasai asko. Baina irakasleari buruan sartu zitzaien ezetz, eta esan

zidan bera pertsonalki arduratuko zela nik praktikarik egin ez nezan. Azkenean, itxaron egin behar izan nuen, eta hurrengo urtean egin.

Zeri buruzko praktikak ziren?

Haurdun zeuden edo 0-3 urte bitarteko haurrak zituzten emakumeekin egin nuen lan, droga-menpekotasun arazoak zituzten emakumeekin.

Irakasle horrek zer pentsatzen zuen, eredu txarra izango zinela?

Bai, edo ez nintzela gai izango. Ni ondo nengoen, orain bezala, beraz ez dakit nondik atera zuen hori, baina halaxe geratu zen kontua.

Irakasle hura salatzeke aukera bururatu al zitzaizun inoiz?

Pentsatu genuen, bai. Bartzelonako zentroa asko haserretu zen eta esan zuten egunkari nagusi batean publikatzeko modukoa zela. Kontua da nire izena atera zitekeela argitara, eta iruditu zitzaizgun akaso gure kontra etor zitekeela eta neu nintzela zabalduz gero agian arazoak eduki nitzakeena lana aurkitzeko

Azken hitza: Feminismoa

Eibarko Nalua talde feministan ibilitakoa da Osoro. Hango esperientziak zer eman dion, horixe galdetu diogu elkarrizketa bukatze aldera: "Hasiera batean helburua zen gaur egungo egoera aldatzea, gertaerak ikusaraztea eta aldarrikapenak egitea, baina, horretaz gainera, taldeak lagundu zidan nire buruarekiko helburu nagusia lortzen. Errudintasuna kentzen lagundu dit feminismoak, eta nire gorputza eta burua errespetuz eta merezi duten moduan maitatzen. Barne borroka hasia neukan, baina Nalua topatzeak arnasa eman zidan eta ikusi nuen ez nengoela bakarrik, jende asko dabilela borrokan. Feminismoak eta taldeak eman didate espazioa nire izateko, tabu gabe esateko nola sentitzen naizen, zer behar dudan, zer naizen eta norantz jo nahi dudan".

edo aurrera egiteko. Iruditu zitzaigun ez zela unerik egokiena.

Moda-publizitateari eta super-modeloei egotzi ohi zaie anorexiaren ardura. Gizarteak, eskolak, kuadrillak... ez al dauka erantzukizunik?

Erraza da erantzukizunari ihes egitea, eta guztiaren ardura publizitateari egotzea, baina azkenean ardura guk daukagu. Txikitik, eskolan, oso gaizki ikusita dago pertsona batek gehiago jatea, eta normalean, perfekzio-kanon batean sartzen ez den jendea baztertu ohi da. Presio sozial oso handia dago.

Horretaz gainera, askotan esaten dut kontraesanen munduan bizi garela. Farmaziara zoaz eta depresioaren aurkako botiken ondoan saltzen dituzte argaltzeko pilulak, edo aldizkari bat erosten duzu tarta bat egiteko errezeta baten bila eta aldizkari horretan bertan bada-go plan bat, "nola argaldu hamar egunean". Edonola ere, publizitateak badu bere eragina, noski, baina guk ez bagenio horri jarraituko, beste begirada bat emango bagenio, gauzak ez lirateke horrela izango. ■



Kalean da otsaileko

aizu!

- Booktegi: guztion liburuak, guztiontzat
- Irulegiko gaztelua, ahanzturatik ateratzen
- Aitor Frantzesena arin-arin
- Barrongo urtegia, polemika iturri
- Etxegabeak, duintasun bila

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizu.eus

Horrela ezin

Hitzen trabeskatzeak ez du mugarik. Azken boladan, trabeskatuen artean trabestuena: inposizioa. Eta erabiltzen azkena Podemos-Ahal Duguko idazkari Lander Martinez. Hona botatako harribitxia: “Ez dugu erabakitze eskubidea inposatzeko bloke bat osatuko”. To eta no. Gehien goaren nahia utikan. Eskubideak komun-zulotik Demokrazia eta ordezkaritzaren sistema bera hankaz gora jarriko luke bere irizpideak. Inposizioaren diskurtso hori ezaguna zaigu. Espainiako eskuma atzerakoienak darabilen argudiaketa gaiztotua eta hizkera pozoitua bera da. Kataluniari buruz behin eta berriro entzuten dugun hori berori: hauteskundeak irabazita aurrera eramaten den proiektua inposizioa eta proiektu totalitarioa ei da; gainerako gutxiengoak defendatzen duena, ordea, bizikidetzaren orekatua. *Harrapazank!*

Zerk egiten du, bada, eskubide bat eskubide? Gauzatzeko aukera bermatuta izateak. Bestela aldarrikapen hutsari buruz ariko ginateke, ez eskubideaz. Ez da EAEko alderdi moreko ordezkariak eskubideen gauzatzeari mugak jartzen dizkion lehen aldia. Gogoan iltzatuta ditut joan den urteko urtarri-leko manifestazioaren harira Martinezek esandakoak: presoak euskal herriratzeko baldintza gisa jarri zuen eragindako minaren aitortza. Eskubide baten urratzeak beste bat estaliko balu bezala. Lotsagorritzeko modukoa izan zen Madrildik Iñigo Errejonek askoz zentzu gehiagorekin irmoki esatea ez dagoela aitzakiarik oinarritzko eskubideak ez defendatzeko, eta, hartara, manifestazioarekin bat egiten zuela. Aurten ere, beste horrenbeste gertatu da, Martinezek ordezkatzeko duen Ahal Duguko sektoreak “aitzakia” berbera jarri du deialdiarekin erakunde gisa bat ez egiteko (Errejonek erabilitako hitz bera erabiltze aldera).



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Podemos inguruko zenbait lagunek ikuskera zurruna izateko motiboa sobera ezaguna da: nazionalismo espainiarraren sukarrak jota egotea. Hori bai dela nazionalismoa eta ez Espainiako Estatuan nazionalista izendatutako independentismoarena. Ezkerreko abertzaletasunari egiten dizkieten kritika guztiak banan-banan betetzen dituzte

Dena esateko, aipagarria da jarreraren guztiz bestelakoa dutela Maria Valiente eta Neskutz Rodriguez alderdikideek,

idazkari nagusi izateko Lander Martinezekin lehiatu ziren bi emakumeek, alegia. Manifestazioarekin baldintzarik gabe bat egitearen aldekoak ziren Ahal Duguren barneko “Denontzat *Para Todas*” eta “Zurekin” joeretako kideak. Horrek erakusten du Ahal Duguren jarrera bestelakoa izan zitekeela, Martinezek bere hautagaitza “inposatu” ez balu (ironia suma bedi lerro artean). Proiektu politiko guztietan dute pisua gidatzen duten pertsonak, baina gai askotan *indefinizioa* tresna gisa erabiltzen duen alderdi baten kasuan are gehiago. Nafarroan ere urak nahasi datoz, eta ikusteko dago pertsona aldaketak proiektuan zein eragina izango duen.

Podemos inguruko zenbait lagunek ikuskera zurrun hori izateko motiboa, alta, sobera ezaguna da: nazionalismo espainiarraren sukarrak jota egotea. Hori bai dela nazionalismoa eta ez Espainiako Estatuan nazionalista izendatutako independentismoarena. Ezkerreko abertzaletasunari egiten dizkieten kritika guztiak banan-banan betetzen dituzte. Besteak beste, pertenezia sentimenduak itsututa ezkerreko printzipioak alboratzea. Badirudi bai bertako Podemosi nola Katalunian en Komuneng inguruko sektoreari kosta egiten zaiela onartzea euren ere nazionalistak direla, espainiar nazionalistak, alegia. Bestela nekez uler daitezke jarreraren asko. Eta kontuz, ez nago ni talde-izaera identitarioaren aurka, ezta gutxiago ere. Halere, Katalunian gertatu den bezalaxe, independentismoa eta nazionalismoa bereizteak kalte baino askoz mesede gehiago egingo lioke hemengo mugimendu independentistari ere, indefiniziora jokatzea zailtzen baitu. Gaur egun, askotan, kategoria sinpleetara mugatzen da gure ikuspegi politikoa, eta horregatik du hitzak zorroztu eta fintzeak horrenbesteko garrantzia norbere ikuskera “inposatzeko”. ■

Hazkundera eta “sandwichak”

Zerga-bilketa arloan, hainbat ahotsek diote txarto eta baldar biltzen dela. Egia esan, legedia hainbat zirrikitu du zerga *elusioa* edo saihestea gauzatzeko. Zerga iruzurra beste gauza bat da, nahiz eta askotan bien arteko muga fin-fina izan. Horretan enpresa handiek, multinazionalak, enpresa taldeek abantaila dute. “Irlandar bikoitza” eta “Herbehereetako sandwicha” zerga gutxiago ordaintzeko estrategiak dira, oso erabiliak.

Adibidez, Herbehereetan enpresa bat sor daiteke, xede bakarra Irlandan egoitza duen enpresaren jabego intelektualari kobratzea izanik. Gero, Herbehereetako sozietateak jasotako %99 beste zerga paradisu batera bidera dezake. Guztia legezkoa, baina ez dago edozein enpresaren esku. Adibidez IKEAk horrela jokatzeko du, beren egoitza Herbehereetan baitago, ez Suedian.

Hala ere, bertoko legediak enpresei beste erremintak eskaintzen die, lehen azaldutakoak erabiltzeko dirua eta egitura garrantzitsu bat behar baita. Ez da zerga kontua bakarrik, zenbait neurritan “arrazoi ekonomikoak” argudiatzeko oso erabiliak baitira. Irabaziak izatea eta egoera ekonomiko txarra dela esatea ez dira kontraesankorrak, erreminta zehatz batzuk erabiltzen badira.



Endika Alabort Amundarain

EKONOMIALARIA

@autogestia

Irabaziak izatea eta egoera ekonomiko txarra dela esatea ez dira kontraesankorrak, erreminta zehatz batzuk erabiltzen badira

Azken urteotan, ekonomista moduan, nire ibilbide profesionalean hurrengo lerroetan azalduko dudana sarritan ikusi dut. Itxurazko adibide bat erabiliko dut uler dadin. Demagun A enpresa txiki batek (25 langile), txikizkari merkataritza sektorekoa dela. Lokala, jabe berarena dela, beste enpresa baten

izenean jartzen du (espresuki sortua, B). Hornidurei buruz jabe beraren beste enpresa bat arduratzen da (C), azken honek hasierako enpresariari (A) hornidura hauek salduz. Jabeak hiru sozietate ditu, baina ia kostu gehienak bakarrean bildu ditu, A delakoan.

Zein da beste bi enpresen helburua? B enpresaren kasuan, jabeak bere buruari alokairua kobratzea. Igo edo murriztu dezake, A enpresan irabaziak murrizteko. C enpresaren kasuan, prezioekin jolas dezake A enpresaren produktuen etekinak jasotzeko. A bankuekin zorpetu daiteke, B eta C enpresak A-tik dirua kostu barik eskuratuz. Azken finean, gastuak eta kostuak beti A sozietatean izango dira. Hau ez da “Irlandar bikoitza” eta “Herbehereetako sandwich” bat, baina Euskal Herri penintsularreko enpresetan joko handia ematen du. Legezkoa da.

Nortzuk dira jokaera hauen galtzailak? Langileak, noski. “Arrazoi ekonomikoak” direla eta, soldaten murrizketak, lan hitzarmenen jaitzierak, kaleratzeak... aplikatzen dituzte. Gure lurraldean ekonomia hazkundera dago eta hazkunde hori kapital errentara (enpresarien patriketara) joaten ari da. Horrela ere gaur eguneko hazkundera azal daiteke. ■

Zer egin?



Iñaki Odriozola
Sustaeta
IDAZLEA
@Inaki_Odriozola

Kalean nindoala, baikor antzean, Varufakis ekonomialari famatuari entzun bainion kapitalismoa bere burua irensteko bidean doala nahitaezko bilakaeran, hara non ikusten dudan aspaldiko lagun bat, bizi guztiko ezkertiarra, koherentea, gorri-gorria, Caritas-eko mahaian arropak jasotzen.

Harriduraz begiratu nion, eta segundo hamarren baten buruan gure bizitza guztia pasatu zitzaidan burutik, hots, langileen aldeko borrokak, mobilizazioak, manifestazioak, ihesak, lan sindikala... Bizitza osoa eraldaketaren zerbitzura. Ikusi ninduenen: “Zer harrituta?”, esan zidan. “Bada, bai”, erantzun nion: “Hau da urte askotan gehien gorrotatu izan duguna, karitatea. Kapitalismoaren aldekoek aurpegia garbitzeko erabili izan ohi dutena, hain zuzen ere, eta aldi berean, eraldaketa oztopatzeke balio izan duen karitate kristaua”.

“Bada, begira” erantzun zidan lagunak: “Hiru-rogei urte ditut, eta orain artekoa ikusi eta gero, joan zait ezer aldatzeko itxaropena. Eta gutxienez egungo behartsuei laguntzea erabaki dut. Orain, ustez ideologiarik gabeko beste zenbaitzuekin biltzen naiz, eta erabilitako arropak biltzen eta banatzen ditugu...”.

“...eta datorren astean ere, saltoki handien atee-tan jarri, eta erosketak egitera sartzen direnei poltsa emango diet, irteeran janariz beteta ekar dezaten, ea lortzen dugun janaria behar dutenen

beharrei aurre egitea”. Etxera joan nintzen, erabat lur jota.

Arnaldo Otegik, Euskal Herrira begira, “iraultza” kontserbadoreaz ohartarazi gaitu behin baino gehiagotan, baina aldaketa sakon atzerakoi hau lehen mundu osokoa dirudit honez gero. Elite ekonomikoak, berrantolaketa (edo krisia) eragin zutenak aseezinak dira, eta agintarien laguntzarekin, lan baldintzetatik hasi, eta oinarritzotzat genituen zerbitzuetara, dena galarazten ari dira; dena dago arriskuan, edozer merkaturen menpe jarri baitaiteke: gauzak eta irudiak, gorputzak eta ideiak, banakakoak eta egiturak, sentimenduak edo emozioak barne. Eta egiten ari dira.

Eta “zer egin?”. Bada, orain momentuan, egia esan, ez zait bururatzen ezer, eta ez dut irakurri ez entzun azkenaldian, ezker aldekoen aldetik, luratuko gaituen zerbitu, piztuko gaituen zerbitu. Eta langileak, herritarrek, gehiengoak, eskuinekoen ustezko konponbideetan sinesten hasi da, besterik ezean, besterik ez balego bezala.

Thomas Hobbes filosofoak, jendarte honen bultzatzaileetako batek, gizakiari buruzko ideia latza zeukan, eta haxe zioen: “Limosna ematen dugunean ere, ez dugu ematen bihotz onekoak garelako, norbera egoera horretan egoteko bel-durak eraginda baizik, nahiko genukeelako geuri ere ingurukoek laguntzea”. Bada, kalean dagoen eskaleari zerbitu eman beharko diodala bururatu zait, lehen aldiz, aurretik pasatzean. Hau da hau! ■

XXI. mendea: iraultza feminista



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Erussiar iraultzaren mendeurrena zarata gehiegirik gabe pasa da, sozialismoa ahaztu beharreko zerbitu dela sinetsi du munduak, eta ekologismo *green* delakoa kapitalismoak irentsi du. Neoliberalismo finantzario tekno-zo-roak ez du aurkaririk. Zer eska diezaiokegu berri onik ematen ez digun mende honi?

Nik feminismoaren gorakada geldiezina eskatzen diot. Feminismoak pertsonen arteko zapalkuntzak berrulertu eta birpentsatzeko tresnak ematen dizkigu, lanaren kontzepzioa zabaltzeko eta gure bizitzaren, gure denboraren eta gure gorputzen merkatzea salatzeke angelua irekitzen du.

Sakonean, armiarma sareak tapaturik eta leiho gabeko sotoetan ikusten ez zena argira ekarri du azken hamarkadetan. Eta subjektu bat. Aniztasunaren ulergarritasun berritua eta desobedientzia freskatua sistemari, portaera ereduak, gizarte oso bati, eta nork bere buruari.

Eta ofentsibarako modu berriak: aurtengo martxoaren 8ko lan, ikasle, kontsumo eta zaintza greba deialdia inflexio puntu bat izan daiteke. Gure lan guztietan, *Emakumeok* planto* egiteak duen potentzial iraultzaileak gure irudimena gaintitzen du. Irribarre bat itxaropen urriko mende madarikatu honetan. Zirrargarria. ■

Peko errekatik, maldan gora

Urte berrian gaude eta honetan zehar Euskaraldiaren garapena etorriko zaigu, araiz, herriz herri eta egunez egun. Gu oraino gaude begira abenduko lehen egunei, zeinetan burutu baitugu BAM –Baiona-Angelu-Miarritze– euskaraz ekimena. Hogeiginen hastapenean eta, usteak gainditurik, mila inguru ginen heltzean.

Astez aste antolaketaren lehen bilkuraz geroztik, iragan da denbora, finkatu eragileak eta juntatu partaideak. Gaur jada segipena nola eman dugu gogoeztagai. Dagoeneko azpimarra daitezke hainbat lorpen, antolatzaile nahiz parte hartzaile gisa, betiere denak alde bikoitzeakoak: lorpen kolektiboak eta pertsonalak aldi berean.

Ahobizi nahiz *belarriprest* gisa, BAMn zehar ukan ditugu bulta zailak: nekezien gainditzea, erdararen zurrumbilotik ateratzea, muturrak jasatea, frustrazioa ere sortu digu eragin genezakeen eremua maila pertsonal soilekoa baitzen, esparru zabalagoak amets (administrazioa, lan mundua...). Nabarmenak dira alde pozgarriak: euskaldun batzuk ezagutzea, saretzea, nahikeria olde gaitza antzematea, helburua betetzen sentitzea.

Antzekoa da talde eragilekoon ondorioa. Gainditu ditugu zalantzak, denboraren kontrako lasterketa, gora behera logistikoak. Sustut, parada gaitza ukan dugu elkar ezagutzeko eta elkarrekin egiteko: bitxia dirudi, kasik denek elkar ezagutzen baikenuen, euskaltzale ezagunak izanagatik, alta ez genuen sekulan egitasmorik garatu elkarrekin orain arte. Berez, hori lorpen handia da, euskaltzaleen arteko kohesioa eragin baitu; kolaborazioak eta egitasmoaren arrakastak, ilusioa sortu digu eta elkarrengandik ikasi dugu; bakoitzaren iritziek, jakintzek eta gaitasunek espresatzeko lekua ukan dute, bakoitzaren sarea eta ahalak ekarpenak izan dira.



Bea Salaberri

IRAKASLEA

@beatxo



Antton Olariaga

Egon garenak oro jatorri, bizileku, esperientzia eta ibilbide ezberdinekoak gara, elkarren osagarri eta sostengu. Balore humano horiek oro dute proiektua berezi egin.

Bestalde, oroitarazi digu herri ekimenaren garrantzia eta inizatiba herritarren egokitasuna, begi bistara ekarri aldaketa lorgarria bihurtzeko ausardiari bide egiten utzi behar zaiola, herritarrengan fidatuz. Oroz gainera, funtsezko aldaketarik eragin ote duen eta ikusgarritasuna zen mailakoa izan den objektiboki neurtzea oraindik zaila bazaigu ere, badakigu ekimenak osatu duela funtsezko hutsune bat, hau da euskararen erabileraren sustatzea eta hitzunen aktibazioaren saila; abentura xume honek euskararen balio sozialaren berrindartzea, honen funtzio arruntena suspertzea ekarri baitu: BAMk euskara gauzak egiteko, ikasteko eta partekatzekeko tresna gisa birkokatu du.

Euskal herritar hori, horrelako ekimen batean parte hartzeko aukera baduzu, ez huts egin! Herritarren multzoa da euskararen geroaren zutoina. Hitzunen esku baita hizkuntza baten geroa. Eta etorkizuna ez da egituretatik jinen. Ez da etorriko jada higatu bideetatik edo moldeetatik. Ez dute instituzioek ekarriko; alderantziz, instituzioen esku hartzearen beha egotea gure kaltekoa bihurtu da, nahi dena espero izan arren, betiere euskara peko erreka bidean jarri duen Estatuaren meneko baita has-teko. Ahalduz eta saretzen den euskaldun bakoitzaren eskutan da geroa.

BAMk mugetatik hara joateko balio izan digu baita mugak non ditugun ohartzeko. BAM abentura zoragarria izan da, sentiarazi eta deskubriarazi digun guziarengatik eta batez ere euskararen geroa gu denen eskuarte koka-tu duelako: hizauna erdian da, hizkuntza etorkizuna diseinatzeke tresna da. Balia gaitzen aukeraz heltzen denean. ■

ZULOAN

Bidaia bat AHT
eta lan-esplotazioan
barrena

Urko Apaolaza Avila



14 €

ARGIA
// LIBURUAK //

AHTko obren hesi laranja gainditu dugu

Lehen eskuko dokumentazio eta testigantzen bidez
egindako bidaia AHTko lan-esplotazioan barrena.

ARGIA eta Manu Robles-Arangizen elkarlanari esker argitaraturiko liburua.

ESKAERAK

www.argia.eus/denda | ☎ 943 371 545 | azoka@argia.eus

AHTzuloan



@AHTzuloan



www.argia.eus/blogak/zuloan



Langabezian ez gaude gustura, lanean ere ez

Lan gutxiago egin, pertsona gehiagok behar egiteko eta hobeto bizitzeko. Utopia zena jokaleku erreala izatera pasatu da. *Think tank* ausartenak dagoeneko hasi dira datorren enplegua irudikatzen.

Jon Artza / El Salto - Hordago

Bai, bagenekien: lana krisian dago. 1990. urte inguruan Jeremy Rifkin-ek *The end of work* (Lanaren amaiera) klasiakoan ohartarazi zigunetik, aurreikuspenik okerrenak betetzen ari dira. Baina orain egiaztatzen ari gara: lana —zehazki, ‘enplegu’ ordaindua— laugarren Industria Iraultzan amaituko da, gizarte eta lan egitura birrintzen ari den golem bat bailitzan robotizazioari aurrera eginarazten dioten automatizazio digitalari eta inteligentzia artifizialari esker.


Oraingo, mezulariak ari dira iristen: langabezia estrukturala, zabor lana, lan erreformak, emigrazioa... Labur esanda, prekarietatea sistema gisa. Egoera kritiko honetan zenbait proposamen indar hartzen ari dira, hala nola oinarritzko errenta unibertsala eta enpleguaren banaketa; bigarren horren adibide da Banatu taldeak proposatu duen eta Nafarroan aitzindari den administrazio publikoetan lana banatzeko Foru Legea.

“Gutxiago lan egin, pertsona gehiagok lan egiteko eta hobeto bizitzeko”, utopia jokaleku erreala izatera pasatu da, baldin eta, paradoxikoki, kapitalismoak

gatazka eutsiezinik gabe biziraun nahi badu. Jacques Ellul-ek salatu bezala kapitalismoak eta marxismoak —kristautasunaren bedekazioarekin— berdin partekatzen duten “lanaren ideologia” santifikatzailean harrapatuta, oraindik ez dugu aurkitu postlangilearen duintasuna, Jünger-en Langilea ordezkatzuz etorkizuneko protagonista izango den “langabetu aktiboaren” figura.

Hiperlangabezia

Think tank ausartenak dagoeneko hasi dira datorren hiperlangabezia saihesteko formulak pentsatzen: zaintzak ustiatzea, *big data* merkantilizatzea, roboten gaineko zergak... ELGA Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundearen txosten berri baten arabera, Espainia, Austria eta Alemania dira robotizazioak eragiteko arriskurik handiena duten Europako herrialdeak (%12, batz bestekoa %9koa denean); batzuk industrializazio maila handiagatik, besteak kualifikazio maila txikiagatik. 2013ko *The Future of Employment* txostenaren arabera, automatizatze



aukera gutxien duen lanpostua jolas-terapeutarena da eta hori ez da oso lasaigarria.

Arazoa da, paradigma aldatzen ari den bitartean, prekarietatean dauden baldintzak nabarmen ari direla okerrera egiten, eta ez dirudi sindikatu nagusiak beren buruari reset egiteko gai direnik. Ondorioz, etorkizuneko lan gatazkatan parte hartuko duten ekimenak sortzen ari dira, bereziki, gazteen sektorean, esaterako, Iruñerriko Langileon Auto-defentsa Sarea.

Jussieuko langabetuen batzarrak ohartarazi zigun: “Langabezia desagerarazteko modurik onena lana abolitzea da”. Egokieraz baliatzen den boutade situazionista dirudi, baina hobe dugu postlanaren *koan* gisa hartzea. Paul Lafarguek, Marxen suhi bihurri eta nagieria eskubidearen aitzindariak, ederki ulertuko luke, beharbada, hemendik gutxira, Bartebly-ek, Melvilleren pertsonaiak esaten zuen hura esango baitugu: nahiago nuke ez lanik egin... eta gozatzuz, matxinatuz eta biziz egin ekarpena gizarteari.

Iruñerriko Langileon Autodefentsa Sarea

“Sindikatu ezin daitezkeenak defendatzen ditugu”

Ivan Pastor / El Salto - Hordago

ARGAZKIA: JONE ARZOZ

Iazko uztailaren amaieran Iruñean Koi Sushi jatetxeak zor zion guztia ordaindu zion Migueli, jatetxeko banatzaileetako bati. Garaipen hura ez zen lortuko Miguelek bere eskubideak aldarrikatzeko Langileon Autodefentsa Sarea jo izan ez balu, eta erakunde honek hilabete eta erdian emandako laguntzarik eta sustutako kontzentrazioarik gabe.

Nola sortu zen Langileon Autodefentsa Sarea?

Kezka bera genuen hainbat pertsona bildu ginen: gazte mugimenduak lana urruneko kontutzat zeukala iruditzen zitzaigun. Hitzaldiak antolatzen hasi ginen, baina aldarrikapen hutsetik harago, lan baldintzak hobetzeko modu aktiboan borrokatu nahi genuen. Pixkana jende gehiago bildu zen, gure berri eman genien gizarte kolektiboei eta aurkezpena 2016ko azaroan egin genuen.

Baina bazenuten esperientzia...

2016ko Sanferminetan kanpaina batekin aurkeztu ginen jendaurrean; hiria papereztatu genuen “San Ferminen esplotatu egiten zaituzte. Zuk gozatzen duzu, haiek lan egiten dute” leloarekin. Elkartea eratu gabe zegoen oraindik, baina ikusi genuen festetan errespetua galtzen zaiela zerbitzari, saltzaile ibiltari eta kale-garbitzaile askori. Festen politizazioaren ikuspuntua aldatzea zen gure asmoa, festa eremuan pankartak jartzera mugatu gabe, gaizki ordaindutako eta ezkutuko enpleguaren baldintza geroz eta hedatuagoak salatzeke, maiz ahaztu ohi direnak. Kanpaina arrakastatsua izan zen eta iaz berriro egin genuen. Aurrerago enpresako afariei

buruzko kanpaina egin genuen. Nagusiak gonbidatzen zaituela baina azken finean zuk ordaintzen duzula nabarmendu nahi genuen.

Gatazketan ere modu aktiboan parte hartzen duzue.

Jakina baietz. Hitzaldiak eta kanpainak antolatzeaz gain, praktikan gure lana da guregana jotzen duten pertsonen gatazkak konpontzen ahalegintzea edo beste borroka batzuetan laguntzea, informazioa zabalduz eta mobilizazioetan parte hartuz, Capraboko langileen greban egin genuen bezala.

Orduan aholkularitza zerbitzu baten antzera funtzionatzen duzue?

Ez, hasierako gure hausnarketa politikoaren parte da lan eremu hori arbuia-tzea. Tresna praktikoa eta eraginkorra izan nahi dugu, langilea parte hartzera bultzatuko duena eta elkartasun sareak ehunduko dituena. Sindikatuak iristen ez diren tokietan jarduten dugu: sektorean interesik ez dutelako edo langileek defendatzeko ahalmenik izan ez dutelako. Ez diegu bide juridikoei lehentasuna eman nahi; gure lan egiteko modua gatazka nabarmentzea da, klase elkartasuna zabaltzeko ahaleginean. Gure ustez, metodo horren bidez, pertsona horri laguntza emateaz gain, borroka bakoitzarekin gizentzean doan kontzientzia sortzen da. Berezik, eragindako pertsonak parte hartzea eta bere aldeko pertsonen sare bat dagoela jakitea nahi dugu.

Zer egitura izango duzuen erabakitzen ari zarete oraindik...

Bai, deszentralizazio prozesuan gau-



de. Gure ekintza eremua Iruñerria da eta, urtebeteko ibilbidea egin ondoren, auzoetan lan egiten hasi nahi dugu. Auzoko batzorde txikiak eratu nahi ditugu propaganda lanetarako, gatazkek antzemateko eta gizarte egiturarekin harremanak izateko. Jendeak erantzun dezan auzoan antolatuta egon behar duzu, baina ez duzu egitura astuna behar. Eredu hau eraginkorra da zerbitzuen sektoreko proletalgo berriarekin jarduteko, baina iristea zailagoa den beste errealitate askoz ere handiago bat dago: industriako azpikontratazioa, behin-behinekotasunari eta aldi baterako lanerako enpresei lotua, gazte asko esplotatzen dituen.

Baina gazteak izan arren –21 eta 32 urte artean dituzue– ez duzue gazteen prekarietatera mugatu nahi...

Hasieratik uko egin genion horri. Gizarteak denei etiketak jartzeko eta talde txikietan zatitzeko joera dauka eta guk kontrakoa nahi genuen. Gazteak, etorkinak edo emakumeak bakoitza bere aldetik ari badira, azkenean langile klaseak indarra galtzen du. Nahiko bateratzaileak gara eta, gainera, inguru militantetik atera nahi dugu. Oharkabean pasatzen diren arazoak dituzten pertsonengana iritsi nahi dugu. Horregatik saiatu ginen estetika betikoa izan ez zedin, lehen begi kolpean gogaitzen gaituzten ohiko sinboloekin.



Zer diagnostiko egin zenuten lan merkatuaz, horrelako erakunde baten beharra ikusteko?

Ezegonkortasuna eta aldi baterako lana oso zabalduak daude eta horrek ez du lantokian modu iraunkorrean antolatzeke aukerarik ematen. Sindikatu ezin daitezkeenak defendatzeko sortu ginen, gizarte honetan ordu asko lan egiten dutuen eta oso gutxi ordaintzen dioten pertsonak baitaude eta ezin dituzte hilean 60 euro ordaindu edo ez dute nork defendatu. Langile klasea eta antolatzeke moduak birmoldatzen ari dira. Sindikalismo sozialaren hainbat adibidetan ikusi dugu hori, hala nola Movistar edo Bershkaren greban, edo lantokian baino lurraldean oinarritutako erakundeak, esaterako Carabancheleko ADELA (Langileen Autodefentsa) edo Seattleko Elkartasun Sarea.

Eta zein izan da sindikatu tradizionalen erantzuna?

Ia denekin hitz egin dugu. Txikiekin kideetasun handiagoa izan genuen, eta handienekin mesfidantza gehixeago. Beste zerbait gara. Ez dugu sartu nahi izan "alderdikeria sindikal" horretan, egitura bateratzaile eta asanbleario bat eratu baizik. Behin, fabrika bateko gatazka batean, zer interes genituen galdetu ziguten. Nahi dugun gauza bakarra da jendea lanean antolatzea eta elkartasun loturak sortzea. Ez dugu afiliaziozko egitura bat nahi, militantziazkoa baizik.

Gogoko Goxuak gatazka Donostian

Lander Arbelaitz Mitxelena

@larbelaitz

ARGAZKIA: LIDE FERREIRA - IRUTXULO KO HITZA

Gazteek lan arloan bizi duten prekarietateari aurre egiteko tresna berrien beharra zeukatela ikusita erabaki zuten antolatzea, bertako kide den Garazi Castañosen hitzetan. 2017ko uda aurretik, Uliako Lore Baratzetan lehenik eta Txantxarreka gaztetxean egin zituzten Gazteraiki topaketen testuinguruan sortu zen taldea. Egiten duten lana sindikalgintzarekin uztargarri ikusten dute, eta hauek heltzen ez diren jendearekin elkartasun sareak sortu nahi dituzte, egoerari konponbide kolektiboa eman asmoz.

Donostian Gogoko Goxuak kafetegi katearen aurka zentratzen ari dira borroka, Gipuzkoa plazan duten lokalean. "Oso zabal heldu zaigu, testigantza askorekin, bertan prekarietatea oso zabala dela eta langile askori ez dietela behar bezala ordaintzen". Pozgarri zaie gaia sona hartzen ari dela ikustea, "baina oraindik lortu behar dugu borroka modu efektiboan artikulatzea, dirua zor dieten langileei ordain diezaieten. Jende gehiago lotu

behar dugu protesta honetan, presioa handitzeke", dio.

Kafetegi barrura bezeroei esku-orriak ematera sartzen direnean, beren kasu zehatza azaltzen duten Olaia eta Maddi langile ohiek "oso momentu potenteak" sortarazten dituztela azpimarratuko luke Castañosek. "Jende askok prekarietatearen berri prentsaren bidez edo modu orokorrean hitz eginda bakarrik dauka, baina aurrez aurre bi langile ohik leku horretan bertan zer egin dieten eta zer egiten duten azaltzean, oso modu humanoan azaltzen da bai egoera, baita arrazoi politikoak ere".

Euskal Herrian antzeko planteamenduekin sortu diren eragileekin harremana dute: Bilboko Eragin, Hernaniko Autodefentsa, Iruñerriko Babes Sarea eta Iruñerriko Gazte Langileok, besteak beste.

Donostiako taldearekin harremanetan jartzeko, donostiakobabessarea@gmail.com edo 644735884 zenbakia jarri dituzte eskuragarri.

Olaia Aira Gogoko Goxuak kafetegiko bezeroei beren egoera azalduz, ondoan Donostiako Babes Sareko kideak dituela.



Lanaldia murriztu daiteke?

Veronica Castrillón eta Jon Bernat Zubiri
El Salto - Hordago



Lanaren banaketa alternatiba ezinbestekoa, bidezkoa eta, batez ere, bideragarria da langabeziaren aurka egiteko.

Langabeziaren egungo kronifikazioari eta gutxiespenari soldata txikien eta nahi gabeko lanaldi partzialen igoera erantsi zaie, batez ere emakumeen artean. Azken Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuek diotenez, langabezia tasa %10,6koa da Nafarroan eta %11,5ekoa EAEn (%16,6 eta %18,8 nahi gabeko partzialtasuna langabeziatzat hartuz gero). Emakumeen langabezia tasa %24tik gorakoa da. Egoera honek lanaldia murriztea -hau da, enplegua banatzea- sekula baino beharrezkoagoa da.

Lan Kostu Bateratu errealean jokabidea kontuaz hartuz gero, gainera, murrizketa neurri justua da. 2010etik 2015era, murrizketa metatua %5,6koa izan da Nafarroan eta %6,9koa EAEn, soldatak produktibitatea baino gutxiagoa hazi direlako.

Gipuzkoarako plan bat

EUSTATen eta Nafarroako Foru Ogasunaren 2008-2012 urteen arteko datuak

alderatuta, zerga zuzenen (PFEZ eta sozietateen gaineko zerga) batez besteko presio eraginkorra %15,4koa izan zen lan errenten gainean eta %5,5ekoa kapital errenten gainean. Bereziki enpresa handiek zenbait zerga-abantaila erabiltzen dituzte Sozietateen gaineko Zerga saihesteko: amortizatzeko askatasuna, beste ekitaldi batzuetako zerga oinarri negatiboak konpentsatzeko kenkariak edo zerga bikoitzen salbuespena... Ondorioz, kapital errenten %40k baino gutxiagok ordaintzen dituzte zergak Ogasunean; soldatei dagokienean, aldiz, %100ek ordaintzen dute.

Beharrezkoa eta bidezkoa izatez gain, lanaldia murriztea bi joerei buelta emateko politikarik merkeena eta eraginkorrena da. Gipuzkoako adibidea aintzat hartuta, soldatapeko biztanleriaren lanaldia %10 murrizteak lanaren banaketan izango lukeen eragina aztertzea interesgarria da. Helburua langabezia tasa % 5 jaitea litzateke, eta bi abiapuntu izango lituzke oinarri: soldatetan aldaketarik ez egotea, edo lanaldiaren murrizketaren eraginez, soldatak %5 jaitea.

Bi kasuetan administrazio publikoen diru-sarrera erantsiak oso handiak izan litezke: BPGren %3,4 lehenengo abiapuntuan eta %2,5 bigarrenetan. Soldatak murriztean, hasieran soldatapeko langileek BPGren % 2,9aren kostu baliokidea ordainduko lukete eta, kasu horretan, ordainsari txiki eta ertainak pixkanaka berdindu beharko lirateke PFEZ bidez. Enpresentzat kostuak BPGren %7,3 eta % 3,3 artekoak lirateke bi egoeretan, eta bidezko banaketarako mekanismo bat beharko litzateke lanean intentsiboenak diren enpresak ez zigortzeko, normalean ez baitira izaten etekin gehien lortzen dutenak. Negozio bolumenaren gaineko zerga progresibo baten bidez egin liteke, fakturazioa zerga-oinarritzat hartuz. Banaketaren Zerga honen kuota-ri lanaldiaren murrizketak eragindako kostuak kenduta, enpresaren likidazio-saldo positiboa edo negatiboa lortuko genuke. Zergaren emaitzak neutrala izan behar luke, salbu eta lanaldiaren murrizketan parte hartuko ez luketen enpresen kasuan. Kasu horretan, diru-sarrera publiko gehigarriak egongo lirateke, enplegu publikoa sortzera bidera litezkeenak.



Nazioarteko Diru Funtseko idazkari orokor Christine Lagardek Mariano Rajoy zoriondu zuen Espainiako Estatuaren aplikatutako lan erreformagatik. Irudian, Bilbon egindako goi bileran.

PROPOSAMENA ERANTZUN ZAIN

Banatu enplegua eta aberastasuna banatzearen aldeko taldea da Nafarroan. Enpleguaren banaketaren berri zabaltzen du hainbat ekimen eta jardueren bidez, esaterako, "Lan banaketa lanaren amaieraren garaian?" jardunaldiak, UNESCO katedrarekin batera NUPen antolatutak. Jardunaldi horietan Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegua banatzeko neurrien Foru Lege Proposamena aurkeztu zen, lanaldiaren eta baimenen murrizketan oinarritua. Proposamena Nafarroako hainbat sindikaturekin aztertu ondoren, Nafarroako Gobernuak Lehendakaria kontseilari Maria Jose Beaumonti aurkeztu diote.

Eta Nafarroa?

Foru Erkidegoa da une honetan lanaldia murrizteko politika gauzatzeko aukera eztabaidatzen ari den toki bakarra. Murrizketa erkidego mailan ezar liteke, Espainiako Estatuak horrelako politikak noiz martxan jarriko zai egon gabe. Gainera, Banaketaren Zergaren alternatiba osagarriak egongo lirateke.

Batetik, pizgarriak sektore pribatu eta enplegu publikoaren banaketa -azpikontratazio klausuletan ere jaso litezkeenak-. Eta, bestetik, gobernuak Enpleguaren Aldeko Hitzarmena bultzatzea, patronalen eta sindikatuen arteko negoziazio kolektiboaren bidez. Edonola ere, langabezia murrizteko politikak abiaraztea, errenta modu justuagoan banatzea, soldaten eta etekinen arabera zerga bidezkoagoak ezartzea eta enplegua eta zaintza lana banatzea beharrezkoa, bidezkoa eta, batez ere, bideragarria da. ■



**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



tradebi@tradebi.com

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak



Belarri finetik soinu oneko joarea

“Pertsonak zapata bezala, joare bakoitzak behar du bere neurria, bere soinua” esan digute Apezetxeatarrek. Izan ere, abila behar du joaregileak; jakin behar du mailua hartu eta kolpe zehatzak ematen: non eta nola jo asmatzen. Kolpe horiek emango baitiote forma joareari, eta formak, soinua.



Iñaki Sanz-Azkue

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Esku artean duenari zein soinu dago-kion jakitea da joaregilearen lana. Eta belarriak erabakiko du eskuek egindakoa egokia den ala ez; berak gidatuko ditu eskuak joarea ondo egitera; joarea belarriarekin egiten baita. Apezetxeatarrean aitona hasitakoa bilobak darama orain. Maite dute euren ofizioa; nola gainera! Artzainak, beraz, lasai egon daitezke. Goizuetako joaregileak belarria galduta ere, bihotzarekin egingo bailituzkete joareak.

Aitona Bixente Apezetxea (Leitza, Ibero baserria, 1882) izan zen familian aurrena joareak egiten. Zentralean lanean ari zela, “karoia” gastatua zuen joare bat ekarri omen zieten, eta zentra-leko arduraduna mekanikoa izanik, berak konponduko zuela esan omen zion Bixenterri. “Eta egin zion karoia berria, baina joareak soinua galdu! ‘Orain non da soinua?’ galdetu omen zion Bixentek enkargatuari”, esan digu Joxe Antonio Apezetxeak (Goizueta, 1928), Bixenteren semeak. Bixente artzaina zen, eta bazekien zer soinu zegokion ekarri zieten joareari. “Enkargatuak konpondu, baina gure aitak paratu omen zion berri-iz soinua joareari. Horrela hasi zen joaregile lanetan!”.

Aitona Bixenteren garaian 200 arditik gora omen ziren baserriero. Eta bertan, Goizueta inguruan saltzen zuten joarea. “Gero akitu ziren ardiak eta artzainak, eta kotxerik ez aitzak kanpoan saltzeko, eta utzi zuten. Orduan hasi ginen anaia eta biok” esan digu Joxe Antoniok. “Aitzak lana zaila zela esaten zigun, baina bera etxean ez zen batean anaiak eta biok joare bana egin genuen. Bageneukan soinua hartua belarrietan eta! Aita harrituta geratu zen, eta hala hasi ginen 1947an, bere kontseiluak segituz. Beste anaiak utzi, baina anai gaztea, Juan, hasi zen gero, eta orain horren semeak egiten ditu joareak Lekunberrin”.

Joxe Antonio, aita, Jexux Mari (Goizuetako, 1964) semearen tailerrean izaten da sarri. Jexux Mari da joaregilea orain, eta berak darama ardura.

Importantea soinua baita

Joxe Antoniok gogoan ditu hasierak: “Joareak egiteko latoia ezin bilatu ibili nintzen, eta azkenean Bilbon aurkitu nuen”. Joarea egiteko neurri jakineko txapa behar baita. Jexux Mari semeak azaldu digu: “Joarea ez da, hartu eta egin. Ze luzera, ze zabalera eta ze txapa lodiko den... gauza asko ikusi behar dira. Txora-

keria dirudi, baina ez da gauza bera 0,8 milimetroko txapa edo 1ekoa. Jendeak ez du ulertzen bi milimetro nahikoa dela joareari soinua aldatzeko”.

Joxe Antonio eta Jexux Mari zorrotzak dira soinuarekin. “Bada jendea joarea nondik heldu ere ez dakiena. Horientzako igual-igual da soinua. Baina artzaina bada igarriko dio, eta guk behar duen soinua jarri behar diogu joareari” esan digu Joxe Antoniok. “Eta soinua entendi-tu egin behar zaio joareari; joare bakoitzak bere sekretua baitu”.

Joare soinuaren sekretua

Artzainak aziendari jartzen dio joarea, non dabilen jakiteko. Eta artzainak jakiten du normalean zer nahi duen. “Batzuek soinu fineko joarea nahi izaten dute, kanpai txikiaren tipora, *dinnn* egiten duena. Beste batzuek, orde, lodia, urrutira hobeto entzuten baita. Motelak ere deitzen diegu beste batzuei; horiek soinuak gabe geratu diren joareak dira”.

“Badira artzainak etorri eta soinu bereko 30 joare eskatzen dizkigutenak. Nik 30 berdin ateratzeko 100 egin behar izaten ditut askotan” esan digu Jexux Mari. “Izan ere, joarea labetik atera os-tean, zein soinu duen ikusi behar iza-

*Ezker eskubi,
Joxe Antonio
eta Jexux Mari
Apezetxea.
Joxe Antoniok
eskutan du
azkena egin zuten
joaldunentzako
joarea.*





Joareak buztinaz estalita, labera sartzeko prest.

ten da, eta gero nahi den soinu paratu behar zaio. Joareari soinu joka moldatu behar zaio, joka ekarri mailuarekin". Musikariak instrumentua afinatzen duen moduan, joareari ere dagokion soinu jartzten ibiltzen dira joaregileak.

Askotan soinua artzainaren kapritxora egin behar izaten omen dute. Artzainak ardiak dituen lekuaren arabera, edo duen ohituraren arabera, askotan, joare soinu jakin bat nahi izaten du. Urumea bailara, esaterako, oso malkarra da, basoz, iratzez eta sasiz betea. Gune horietan sasi-ardiak dira nagusi, eta horrenbeste landaredi artean zailak izaten dira ikusten. Hau dela eta, inguruotan soinu ezberdineko joareak nahi izaten dituzte artzainek, ardi bakoitza soinuagatik ezagutzeko. "Artzainak ardia joare gabe badu, pauso asko alferrik eman behar ditu" esan digu Joxe Antoniok irribarrez.

Bi soinukoak eta soinu bakarrekoak

Jexux Mariren arabera, artzainak ardi bakoitza bere soinuagatik ezagutzea posible da: "Joare bakoitzak soinu diferentea du, izan tamainagatik edota batzuetan, tamaina beraren barruan ere soinu finagoak edo lodiagoak izaten direlako".

Badira joareak mingainak txapa jotzean bi soinu ateratzen dituztenak ere. Horiei bi soinuko joareak deitzen diete. Urumea bailaran esaterako estimatuak dira oso, mota horietako joareak errazagoak baitira entzuteko, eta beraz, sasi-ardientzako aproposak. Soinu bakoak, artaldean ibiltzen diren ardiak dituzten artzainek nahi izaten dituzte maizago.

Ba omen dira ardiari joarerik jarri nahi ez dioten artzainak ere. Joxe Antoniok behin artzain batek esan omen zion: "Joareak ez dik ardia egiten", eta Joxe Antoniok erantzun: "Gizonik ez duk gorbatarekin egiten baina makina batek erabiltzen ditek!". Zer erantzun jakin gabe alde egin omen zuen artzainak...

Joxe Antonioren belarri finak

Joaregilea ez ezik, artzaina ere izandakoa da Joxe Antonio, eta Jexux Mariren arabera, bere aitaren belarria bezalakorik ez omen du ezagutu. "Aitak soinuaren arabera ezagutzen ditu joareak, eta kontuan izan joareen barruan mota askotakoak daudela: zintzarria, kalaxka, borobila, dunba... 100dik gora modelo daude!

JOAREA URRATSEZ URRATS

1. Txapa moztu, egin nahi den joareari dagokion tamainan.
2. Kolpeka, txapari joarearen forma eman. Kontuz ibili beharra dago, gehiegi bildu edo behar baino estuago egiten bada, soinua aldatzen da.
3. Belarriak atera eta karoia jarri.
4. Behin forma emanda, latoia jarri. Joare bakoitzak, dagokion latoi gramo kopurua du. Ondoren paperean bildu eta buztina jarri, lastoarekin nahastuta.
5. Labera sartu 1.340 gradu inguruan, beti ere tamainaren arabera.
6. Labetik ateratzean buztina kendu, lehortu, eta leundu.
7. Ondoren, zein soinu duen ikusi, eta soinua jarri, afinatu.
8. Mingaina erantsi larruarekin, barrengoan sartuta.
9. Uztaia gehitu.

Behin Eibartik telefonoz deitu omen zion gizon batek Joxe Antoniok. 50 joare borobil behar zituela esan omen zion; hark etxean zuen joare bat bezalakoak denak. Joarea erakusteko Goizuetara joan eta buelta egitea, ordea, gehiegi zela, eta ea nola egin zezakeen galdetuta, Joxe Antoniok zera esan zion: "Jarri joarea telefonoan eta astindu". Entzun orduko, Joxe Antoniok "hori hiruko borobila duk" bota omen zion. Egun batzuetara gizona Goizuetara joare bila etorri zenean, barrez esan omen zion "hik telefonoz asmatu duk ba!". Soinu eta neurri jakineko joareak nahi zituen, eta Joxe Antoniok biak asmatu zizkion telefonoz, belarriarekin. 50 ordez, 60 eraman omen zituen.

Semeak miresmenez hitz egiten du aitagatik. Kontatzen digu aita etxeko terrazan jarri, eta mendian beste maldan zeuden ardiak joare motak eta neurriak igartzen zituela. "Hori dunba 3' esaten zuen, eta asmatu! Kontuan izan dunba 3 eta 4aren artean zentimetro bakarreko aldea dagoela tamainan, eta berak belarriarekin asmatzen zuen. Orain entzumen galdu du adinarekin baina".

Belarri fina izateaz gain, ordea, entrenamendua ere bazuen Joxe Antoniok,



Joxe Antonio Azpezetxea 80ko hamarkadan joarea labean sartuta.

eta irribarrez kontatu digu: “10etako mezetan elizan ginenean, artalde fama-tuak baziren Goizuetako plazatik pasatzen zirenak joareekin soinu ederra eginenez. Elizan adi izaten nintzen, artaldeak noiz pasako, ze artzain izango zen joare haiekin...”.

Joare bereziak eta gustukoenak

Aita-semeak ez dira guztiz ados jartzen joare kuttunena aukeratzerakoan. Biei “Dunba” edo “Pulunpa” izenekoa gustatzen zaie, 7-8 tamainakoa. “Ardi ederra bada, joare horrekin artzaina ere gustura joaten da!”. Baina aita soinu lodia-goak ditu gustuko, eta semeak finagoak.

Soinu oso finekoen artean dago “txintxa” edo “behi-joarea”. “Diotenez erbinudeak errapetik hozkatzen omen du behia, baina txintxak oso soinu fina duenez, hori jarritz gero erbinudeari min eman, eta ez omen da behira gerturatzeko” kontatu digute.

Badira gutxi egin behar izan dituzten joareak; berezien artean “zerri-joarea”, esaterako. Lehen asko izaten omen zen zerria Goizuetan, eta askotan mendian libre, gainera. Garai hartan, belarrian jartzen zitzairen zerri-joarea: “Zerria

» **JEXUX MARI APEZETXEA:**
 “Ze luzera, ze zabalera eta ze txapa lodiko den... gauza asko ikusi behar dira. Txorakeria dirudi, baina ez da gauza bera 0,8 milimetroko txapa edo 1ekoa. Jendeak ez du ulertzen bi milimetro nahikoa dela joareari soinua aldatzeko”

ezkurrean denbora guztian mugitzen aritzen da, eta zerri-joarea ez da isiltzen. Horregatik, berritsu samarrak direnei ‘zerri-joarea bezalakoa haiz!’ esaten zaio”.

Joaldunentzako ere egin izan dituzte. Aspaldian ez, ordea, joare txikietan

baitaude espezializatuak. Azkenak duela 30 urte inguru egin zituzten, eta bat badute oraindik etxean, mimoz gorde-tzen dutena. Joaldunen artean oraindik beraiek egindakoren bat egongo dela pentsatzen dute, zainduta ondo kon-tserbatzen baitira.

Etorkizunaz hitz egitean amaitzen da soinua...

Galdetu diegu etorkizunaz, baina ez dute erantzuten jakin. Jexux Marik dio lana badagoela. Momentu askotan ezin iritsi izaten omen da. Huescatik, Frantziatik eta Europako beste herrialde askotatik iristen zaizkio eskaerak gehien bat. Ferian ere asko saltzen omen da bere joarea. “Joaregile gutxi gaude, eta nik gainera txapa lodiarekin egiten du-danez, gero eta eskaera gehiago ditut”. Baina ez daki zein izango den etorki-zuna. Hiru belaunaldiren ostean, orde-nagailuek hartu omen dute eskulanen lekua, eta gazteak erakartzea zaila omen da. Euren lantokian, ordea, izaten omen dira ingurukoak laguntzen, beraz, etor-kizunak esango du aitona hasi zuen soinuak zenbaterako oihartzuna izango duen Apezetxeatarren etxean. ■

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU PUBLIKOA ZUK DIOZU **ALDAKETA,** NIK DIOT **MURRIZKETA**

Gipuzkoako zati handi bati autobus garraio publikoa eskaintzen dion Lurraldebus zerbitzuan lineak eta maiztasunak birmoldatzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundia. Debagoieneko, Buruntzaldeko eta Tolosaldeko herrietan kezka handia sortu du Diputazioaren egitasmoak, murrizketak dakartzalako haien esanetan.



Igor Agirre

@igoragirre

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

2017an EAJ eta PSEren esku dagoen Gipuzkoako Foru Aldundiak moldaketak egin ditu bertako herriak autobusez lotzen dituen Lurraldebus zerbitzuan. Debagoienan 2017ko urrian egin dira maiztasun eta ibilbide aldaketak; Tolosaldean eta Buruntzaldean berriz, aurreproiektua aurkeztu du Foru Aldundiak joan den udazkenean. Autobus zerbitzuak izango dituen aldaketek, ordea, arrakala sortu dute eta aurreproiektua ezagutu ostean, aldeko eta kontrako iritziek ezbaian jarri dute proposatutakoa.

Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolamendu departamenduak zerbitzua “berrantolatze” beharra ikusi du Buruntzaldeko eta Tolosaldeko ibilbideetan, “mugikortasun iraunkorra” ziur-

tatu eta herritarren “benetako beharrei” erantzuteko. “Gure eginkizun nagusia zerbitzu publikoa hobetzea da” adierazi zuen PSEko batzarkide eta arlo horretako diputatu den Marisol Garmendiak Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan. “Arrazionalizazioaz” ere mintzo da Garmendia, haren esanetan lineak “gaindimentsionatuta” baitaude.

30 urtez funtzionatu duen garraio zerbitzuaren emakida 2018ko lehen lau hilabeteen barruan lizitatu asmo dute beste hamar urterako, eta martxan izatea espero dute maiatzaren edo ekainean. Diputazioak kontzesio bakarrean bildu nahi ditu orain arte hiru enpresen ardurapean egon den zerbitzua, horretarako EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak beste lizitazio batzuen inguruan



2015ean kaleratutako euren aldeko epai bat dauka esku artean: “Lizitatu gabe geratzen diren zonalde bakarrak dira”.

Debagoienan 2017ko urriaren 2an jarri ziren martxan Lurraldebusen lineen aldaketak. Bereziki Oñatin ez daude gustura. Lehen zerbitzu zuzena zuten Aretxabaleta, Eskoriatza eta Bergara eta berrantolaketarekin horrek okerrera egin duela diote, ez baitute herri horietara autobusez joateko aukerarik lineaz aldatu gabe. Beste adibide bat jarri du Mikel Biain alkateak: “Oñatiri dagokionean, Bergara eta Eibarren arteko linea zuzena ere galdu dugu”. Diputazioak dio autobus-aldaketarena ordu erdiko maiztasuna mantentzearen ordainetan jarritako baldintza izan dela;



» Andoain, Hernani eta Usurbilgo udalek diote aurreproiektuak Lurraldebusen zerbitzuaren %35 desagertzea ekarriko duela euren eskualdean

Lurraldebusen autobusetako bat Donostian, unibertsitate parean. Ikasleek ere nozituko dute zerbitzuaren birmoldaketa, Tolosan esaterako, goizeko lehen orduan fakultateetara doazen autobusen bidaia kopurua erdira jaitsiko da.

zerbitzuaren %35 desagertzea ekarriko duela euren eskualdean. “Zerbitzu batzuk kendu egin dituzte eta hori oso larria da” dio Andoaingo alkate Ana Karrerek. Andoaindik Donostiako Ospitalera joateko autobusen maiztasuna jarri du adibidetzat. Asteazkenean, ordu erdi dagoen autobusa ordu izatea aurreikusten du proiektuak orain.

Mugikortasun sailak, besteak beste, zifra bat darabil zerbitzuak “bermatu eta indartu” egingo direla baieztatzeko: Tolosa eta Donostia arteko eremuan bidaia 55etik 62ra gehituko dira egunero, haren esanetan, eta zuzenean hiriburrura doazen autobusak ere izango dira asteburuan, lehen ez bezala... “Hori al da murrizketa?” erantzun zuen irratian Garmendiak, entzule batek azaldutako kexaren aurrean.

Baina azalpen horiek oso urrun daude herrietan sumatzen dutenarekiko. Usurbil, Eskoriatza, Oñati eta Arrasaten sinadura bilketak egin dituzte aurreikusten diren edo jada egindako “murrizketen” aurrean. Tolosaldearen kasuan, hainbat udaletatik alegazioak aurkeztu dituzte eta Diputazioaren aurreproiektuarekin desados agertu dira Villabona eta Tolosako udalak.

Tolosatik Donostiarako ibilbidean aldaketa nabarmena aurreikusten da, ordu erditik ordubetera igaroko baita autobusen maiztasuna. Zehazki, Donostiara zuzentzen diren 33 autobus izate-tik 18ra jaitsiko da kopurua eta goizeko lehen orduan unibertsitateetara joateko zerbitzua 8tik 4ra. Tolosako Udalak alegazioa aurkeztu du geroaz kopurua

baina Oñatiko Hirigintza zinegotzi Irati Etxeberriak bestelako iritzia azaldu du *Gipuzkoako Hitza*-n: “Bi aukera eman zizkiguten oñatiarroi, eta guretzat biak ziren txarrak”.

Eskualdeko beste zenbait udalerri-tan ere kexu dira lineak kendu edo ordutegia murriztu dietelako. Bergarako kasuan, hango udalak –EAJ eta PSeren agintepean– inkesta bat jarri berri du martxan herritarren iritzia jakiteko autobus zerbitzu publikoari dagokionez, eta udalbatzak aho batez onartu zuen “azken murrizketak” salatzeko mozioa.

Parte-hartze prozesua ala alegazioen tramitea?

Tolosaldean eta Buruntzaldean ere autobus garraioan aldaketak ekarriko di-

tuen aurreproiektuak hasieratik sortu du ezinegon. Proiektuaren edukia soilik ez, hura garatzeko moduak ere kritika zorrotza izan du eta “udalekin eta herritarrekin ez kontatu izana” salatu dute hainbat hautetsik. Zerbitzuaren birmoldaketak izango duen eragina ikusita, udalerrietako ordezkariak ere alegazioak aurkeztu dizkiote egitasmoari. Andoain, Hernani eta Usurbilgo alkateek aurreproiektua bertan behera utzi eta herrietako ordezkariekin konponbide adostua bilatzea eskatu diote Foru Aldundiari. Diputazioa oster, aldaketak egiteko prest azaldu da baina inolaz ere ez aurreproiektua alboratuz.

Murrizketek mintzo dira hiru udal horietako alkateak eta publikoki salatu dute aurreproiektuak Lurraldebusen



mantendu eta maiztasunak orain artekoa izaten jarrai dezan eskatuz. Horretaz gain, Udaleko alderdi guztiek zalan-tzan jarri dute horrelako prozesu bat herritarren parte-hartzea sustatu gabe egitearen egokitasuna.

Mugikortasun diputatuak parte-hartzea lotu du derrigorrezkoa den alegazioen legezko tramitea betetzearekin. Hala, Buruntzaldeko eta Tolosaldeko aurreproiektua “behin-behinekoa” dela dio eta jasotako alegazio guztiak aztertuko dituztela: “Maiztasunak, seguru asko, aldatu egingo ditugu azken proiektuan. Zubietako kasuan, adibidez, gure akatsa izan da eta ez da linea kenduko”. Denera, herritarrek 3.000 alegazio inguru aurkeztu dituztela diote oposizioko taldeek.

Zifren eta datuen dantza

Lurraldebuseko erabiltzaileen kopurua hazten ari da bitartean: 2016ko datuekin alderatuz, 2017ko lehen sei hilabeteetan ia 4 puntu, eta ia linea guztietan izan da hazkundea. Erabakiak hartzerakoan datuek diotenari kasu egiten diotela azpimarratu du Garmendiak: “Badakigu zehazki jendeak noiz erabiltzen duen autobusa, nondik nora joateko eta zer ordutan”. Hori kontuan edukita, goizeko punta-puntako orduak, aldatu ez ezik, indartu egingo direla dio, “jendea lanera, ospitalera edota unibertsitatera eramateko”.

Andoain, Hernani eta Urnietatik Donostiako Ospitalera doan G3 lineako bidaiak astegunez %44 eta asteburuan %68 murriztuko direla salatu dute sindikatuak. Foru Aldundiaren esanetan, ordea, punta-puntako orduetan “indartu” egingo ditu birmoldaketak, “jendea lanera, ospitalera edo unibertsitatera eramateko”.

» **Proiektuaren edukiak soilik ez, hura garatzeko moduak ere kritika zorrotza izan du eta “udalekin eta herritarrekin ez kontatu izana” salatu dute hainbat hautetsik**

EH Bilduko eta Ahal Duguko Batzar Nagusietako ordezkariak ere badituzte euren datuak ordea. Foru Aldundiak, gaur egun, urteko 3,5 milioi kilometroko zerbitzua esleitzen du haien esanetan. Aurreproiektuak berriz, urteko 2,7 milioi kilometro esleitzea aurreikusten du, %23 gutxiago. EH Bilduri “manipulazioa” eta gizartearen “alarma” sortu nahia egotzi dio Garmendiak, bere esanetan, koalizio abertzaleak 2015ean aldaketa eta maiztasun berak proposatu baitzituen.

Bestalde, beste eskualde batzuetan egindako aldaketek emaitza onak eman dituztela argudiatzen dute Foru Aldunditik, horretarako erabiltzaile kopuruan jarri dute arreta: Goierrin 2016an, %38,8ko gehikuntza izan zen eta 2017ko lehen seihilekoan %12,4koa. Nolanahi ere, eskualde horretan autobus zerbitzua birmoldatu eta erabiltzeko parte hartze prozesuak eta kanpainak egin ditu Aldundiak herritarren artean azken bi legegintzalditan.

Langileak ere kezkatuta

Proiektu proposamenak autobus zerbitzuko langileen artean ere harrotu ditu hautsak. Orain arte Buruntzaldeko eta Tolosaldeko ibilbidea kudeatu izan duten enpresetako langileek, UGT, ELA eta LABen babesarekin, agerraldia egin zuten azaroan. Haientzat ere “murrizketak” dira Aldundiak proposaturikoak eta zerbitzu publiko batez hitz egitean “gizartearen interes orokorra interes ekonomikoaren gainetik” jarri behar dela diote.

30 langilek baino gehiagok lanpostua galdu dezaketela ohartarazi dute sindikatuak –100 lagun inguru ari dira orain lanean–. “Zerbitzuak kentzean, langile asko soberan egongo dira” ohartarazi dute. Kontrara, Mugikortasun Departamentuak dio enpresa esleipendunetan ari diren langileen subrogazioa jasotzen duela aurreproiektuak eta beraz lanpostua eta baldintzak mantenduko dituztela. ■

Oscar Escuder, Plataforma per la Llengua-ko lehendakaria

“Espainia ez da aldatuko eta katalan hiztunok anomalia izateari utzi nahi diogu”

Plataforma per la Llengua elkarteak mende laurdena betea du.

14.000 bazkide ditu eta katalan hiztunen eskubideak babestea du helburu. Ez dira hamar urte elkarte estatutua propioa eskatzen hasi zela. Oso sinple azaldu digu zergatia Oscar Escuder elkartearen lehendakariak: Espainiako Estatuko legeen arabera, katalan hiztunak errespetatu beharko lirateke. Praktikan hala ez denez, hiztunen eskubideak babesteko dituen estatua sortzea proposatzen dute.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

Katalana babesteko estatu propioaren aldeko jarrera hartu duzue. Ez duzue beti horrela jokatu. Noiz eta zergatik aldatu zenuten aritzeko modua?

Ez dut data zehatza buruan, 8-9 urte izango dira erabakia hartu genuela. Esan dezagun 16 bat urtez ez gara izan argi eta garbi independentistak. Zergatik? Bada, oso erraza da. Teorian, hizkuntzak erabateko onarpena izan dezan, Europako hizkuntza izan dadin, katalan hiztunok eskubide guztiak izan ditzagun, ez genuke behar estatu independentea. Hainbat estatutan, Kanadan, Belgikan, Finlandian, gu baino askoz gutxiago dira hizkuntza gutxiagotua hitz egiten dutenak eta haien hizkuntza eskubideak onartuak dira.



Adibide bat jarriko dizut: Kanadako edozein tokitan eskatu dezakezu frantsesez epaitzea eta frantsesez epaituko zaituzte, ez da ezer gertatzen, inork ez du pentsatzen Kanada puskatuko denik edo antzekorik. Hemen katalanez epaitzea eskatu, eta esate baterako, epaileak abokatua irain dezake.

Espainiako Estatuak uko egin dio gure estatua ere izateari. Teorian beharrik ez badago ere, praktikan egunez egun ari zaigu erakusten katalana ez duela hizkuntza normal egingo, ez duela bidea egingo katalan hiztunek espainieraz hitz egiten dutenen eskubide berak izateko. Herritar normalak izan nahi dugunez, alde egongo den estatua nahi dugu, ez aurkakoa. Kanada, Belgika eta abar aipatu ditut. Estatu horiek modu arduratsuan, demokratikoan, bidezkoan, lantzen dituzte haien hizkuntzak. Beste estatu batzuek haien hizkuntza aniztasuna aberastasun gisa eta babesteko zerbait bezala ulertu beharrean, enbarazutzat hartzen gaituzte. Espainiako eta Frantziako estatuak dira horrelakoak. Espainia ez da aldatuko eta guk anomalia izateari utzi nahi diogu.

Legebiltzarreko hauteskundeetara begira oso kanpaina zehatza eta zuzena egin zenuten, 155. artikulua tartean zela: *La llengua no es toca*. Ohikoa da zuen erakundeak halako kanpainak egitea?

Ez da ohikoa, egoera ez delako arrunta. Ez gaude amore emateko edo ezer gertatuko ez balitz bezala jokatzeko prest. Hauteskunde bakoitzean alderdi politikoekin harremanetan jarri gara eta hurrengo legegintzaldian gure ustez lortu beharreko helburu linguistikoak eskatu dizkiegu. Guk lobby linguistiko lana eginen dugu alderdi politikoekin, talde parlamentarioekin eta gobernuekin.

Urriaren 1eko erreferendumerako kanpaina egin genuen. *Sí*-aren aldeko botoa eskatu genuen eta leloa *Un estat a favor* izan zen. Ez da ohikoa, ez, baina erreferenduma izan dugu, 155. artikulua ezarri digute, eta berriz gertatzen bada, antzeko zerbait egingo dugula iruditzen zait. Zergatik jokatu dugun horrela? Hizkuntza erakundea gara eta hizkuntza dugu jomuga.

Euskararen alde ari diren elkarte eta erakundeei aholkatuko zenieke zuek bezala estatu independente baten aldeko jarraera garbia izatea?



Nahiko lan badugu gurearekin, besteei zer egin behar duten esateko. Zerbait esatearren, ni euskalduna banintz independentista izango nintzateke.

Estatu independentearen alde egiteak ondorioz izan du erakundeko jarraitzaileen artean?

14.000 bazkide ditugu, hainbat langile eta boluntarioak. Urte hauetan kexa batzuk izan ditugu, ez ditut zenbatuta, lau, bost edo hamar bazkidek utziko zuten elkartea, oso gutxi.

Beraz, elkartearen ez dago bazkiderik uste duenik ez dela derrigorra estatu independente bat izatea hizkuntza normalizatze.

Beste gauza bat da alderdi politikoetan eta gizartearen orokorrean, baina gure

elkartearen erreakzioa nolakoa izan den esan dizut.

Zer egin daiteke hizkuntzaren alde bai baina independentziaren beharrik sentitzen ez duten horiek katalanaren normalizazioaren borrokan mantentzeko?

Batzuek bazkide izateari utzi diote, baina horrek ez du esan nahi guk horientzat ere lanik egiten ez dugunik. Guk denentzat egiten dugu lan. Boto emaleen mailan jarriko naiz. Alderdien programa politikoen arabera, jakina, independentziaren alde egin duten hiru alderdiekin ados gaude, baina horiez gain hor dago En Comú Podem zeinak eskola eta hizkuntzaren normalizazioa babesten duen, baita PSCK ere, nahiz eta gauza askotan politikoki desberdintasunak ditugun, beti babestu du eskolako murgiltze sistema. Hemen



bizi den eta hemen gertatzen dena ezagutzen duen ia inork ez dizu esango gatazka linguistikoa dagoenik. Beste biek [PP eta Ciudadanos] zailagoa da. Aurrekoan Ines Arrimadasi elkarrizketa egin zioten TV3n eta eskolaz ari zirela ondokoa esan zuen: “Guk hiru eleko eskola defendatzen dugu, espainiera, katalana eta ingelesa irakasten dituen”. Oraingo eskola ereduaz kexatzen dira, baina ez dira kexatzen katalana desabantaila garbian dagoen beste arloez. PP eta Ciudadanosekin gauza gutxi daukagu egiteko.

Errepublika berriak nolako hizkuntza antolaketa izango luke? Hizkuntza bakoitzaren estatusa zein litzateke?

Garbi daukagu katalana eta aranera Kataluniako berezko hizkuntzak direla, bakoitza bere lurraldean, zeren garbi

» “Ni euskalduna banintz independentista izango nintzateke”

» “Estatu propioaren alde egin dugunetik bost-hamar bazkidek utzi dute elkarteak. 14.000 bazkide ditugu”

» Hizkuntza ofizialak katalana eta aranera izango liratekeen errepublikan: “Kontua ez da apartheid linguistikoa egitea, ezta gutxiagorik ere, halakoak leporatu badizkigute ere”

dago katalana ez dela Araneko berezko hizkuntza. Beste ehuneko garrantzitsu baten berezko hizkuntza espainiera da. Eta hemen bizi den %10aren hizkuntza ez da ez aranera, ez katalana ezta espainiera ere.

Guk ez dugu nahi guri gertatu zaiguna inori gertatzerik hizkuntzagatik, baina garbi daukagu baita ere katalanek hizkuntza normala eta ofiziala izan beharko lukeela, arrunta erabileran, erakunde publikoetan, harreman komertzialetan... Dena dela, denbora faktorea kontuan hartu behar da. Errepublika aldarrikatzen den egunean, gauzak ez dira aldatuko gaurtik biharrera, atzo katalana zekienak gaur ere badaki eta ez zekienak segituko du jakin gabe. Katalanez etiketatu gabeko produktuek etiketatu gabe jarraituko dute. Ez dugu

inor botako lanetik katalana ez jakiteagatik, baina baliabideak jarri beharko dira ez dakienak ikas dezan. Kontua ez da apartheid linguistikoa egitea, ezta gutxiagorik ere, halakoak leporatu badizkigute ere.

Espainiako Estatuan izan behar zuena eta izan ez dena errepublika katalanean izatea nahi dugu.

Ez duzu borobildu hizkuntza ofizialen gaia.

Gure proposamena katalana eta aranera hizkuntza ofizialak izatea da, baina kontuan hartuta ez dugula inor etxetik botako, ni bezain katalanak dira. Atzeritarren %10 horri buruz, nahiz eta ez den gure lana izango, oso garrantzitsua da, ahal den neurrian, bereziki beste ama hizkuntza batzuk dituzten umeek hizkuntza horiek ondo ikastea eta ikasketak ez dadila gurasoen ardura soilean utzi. Garrantzia bi arrazoiengatik dauka, batetik, kultur eta hizkuntza aberastasunaren ikuspegitik, eta bestetik, aberastasun ekonomikoa delako. Munduko hizkuntza piloa hitz egiten duen jendea badaukazu; txinera, errumaniera, arabiera, amazigera hitz egiten duen jendea, herrialdeak hobera egingo du.

Errepublika berriak Principat-a hartuko luke, eta katalana beste lurralde batzuetan ere hitz egiten da.

Zuzenean edo zeharka denetan jendea daukagu lanean: Alguer, Andorra, Balear Uharteak, Ipar Katalunia, Sartaldeko Zerrenda eta Valentziako Erkidegoa. Aldeko estatua izanda errazagoa izango da lurralde horietan egoerak hobetzea. Egoerak oso desberdinak dira. Hemen etiketajeaz kexatzen gara eta katalan hitzunik bizi diren lurralde batzuetan eskolan ere ez da irakasten katalana.

Aran haranarekin nolako izango litzateke harremana?

Guk diogu Kataluniako egoera linguistikoa katalanok erabaki behar dugula eta Araneko egoera linguistikoa haiek erabaki beharko dute. Guk proposatuko dugu aranera, katalana, espainiera eta ingelesa ikastea, eta guretzako balio duenak haientzat ere balio du. Batzuetan esaten da errepublika katalana errepublika binazionala izango dela, Katalunia eta Aran izango ditu. Hala da. Guk errespetu guztia diogu aranerari eta bertakoen borondateari. ■



Krakobian egindako ikerketaren arabera, trenbidean tximeleta eta erle gehiago topatu dituzte inguruko belazeetan baino. Polinizazioa laguntzen dute.

Zain ditzagun trenbideak



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Polinizazioa garrantzitsua da landare gehienek bizimoduan. Espezie eta aldaera bakoitzaren etorkizuna eraikiko duen hazia sortzeko nahitaezkoa. Lorearen aieka arrak sortzen duen pollen aleñoak aieka emearengana egingo duen bidaia da polinizazioa. Bidaia hori intsekturen baten soinean, buruan edo hanketan egin dezake, baina haizeak ere eraman dezake firi-firi kiribilka.

Polinizazioa derrigor garrantzitsua da fruitua edo hazia bildu nahi diogun landarearen hazkuntzan. Begira zein garrantzi izan duen erlezaintzak gure baserri sagardogileetan; sagarrak opa-

ro eman dezan ezinbestekoak ziren erlauntzak. Izan ere erleak dakar sagarra. Erlea etxekotua ez, etxekoa zen!

Nekazaritza industrialak edo kapitalistak ikaragarritzko jipoia ematen dio polinizazioari, intsektuak urritu egiten ditu eta landare ugariaren etorkizuna kinka larrian dago. Erleez gain intsektu askok zeresan handia dute milaka eta milaka landareren polinizazioan. Intsektu hauek babestu eta sustatzea izan da ingurumen politika orokorretako arrazoi eta helburu potoloetako bat urte askoan.

Parke naturalek, guneez babestuek eta abarrek zeregin nabarmena dute polinizatzaileen iraupenean, baina baita are gehiago antropizatutako edo jendeak eraldatutako guneez ere. Trenbideek, adibidez.

Europar Batasunean 200.000 kilometro inguru trenbide dago. Horien bazterretan lore landare ugari bizi da. Horrek polinizatzaileak ere badi-rela adierazten du. Krakobian (Polonia) egin duten ikerketa baten arabera trenbideen egiturak (pendizak, tontor lehorrak, beheko-barren hezeak...) intsektu laguntzaile hauen ugaritasuna sustatzen du. Inguruko belazeetan baino gehiago topatu dituzte trenbidean: tximeletak bertako landareak nagusi diren tokietan eta erle jendea kanpoko landareak direnetan. Zuhaikek bereganatutako trenbide ertzetan intsektu hauek urritu egiten dira. Nekazaritza naturalaren eta ingurumenaren alde, zain ditzagun trenbideak. Herbizidarik gabe, noski! ■

IRAKURLEAK
✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Noiz da garai onena kiwiak inautesteko?
Aintzane Maiztegi (Azkoitia)

Sasoi onena martxo aldeko ilbehera da, aurten otsailaren 26tik martxoaren 10 arte. Hori emeak inautesteko. Arrak oso-osorik utzi eta loratu ondoren, loreak ondo ihartu zaizkionean inausi.



OTSOKOP

Tokiko ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko zubia



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: OTSOKOP

Elkarlanean eta ingurumena errespetatzen duten produktuak eskuragarriago jarritz. Horrela ari dira lanean Otsokop elkarteak. 2015ean sortu zuten hiru lagunek elkartea Angelun, eta denbora horretan jende berri asko batu zaie proiektura. "Gizarte lotura bultzatuko duen toki atsegina sortzea, bertako ekonomiaren alde eginez eta ekoizle eta kontsumitzaileen arteko merkaturatze bide laburren bidez". Hori da asmoa, elkarteak webgunearen aurkezpenean azaltzen dutenez.

Internetetik saltokira jauzi

Hasieran, elkartek internetez egiten zuen tokiko produktuen eskaintza, eta bazkide bakoitzak bere erosketen zerrenda egin eta gero banaketa egunean produktuen bila joan behar zuen. 2016an, berriz, jauzi garrantzitsua eman zuen elkartek: saltokia irekitzea. "Sentitzen genuen urratsa eman beharra genuela", azaldu zuen Josiane Libiar elkarteak ki-deak Kanaldudek egindako elkarrizketan.

Baionan dute Otsolab denda, San Izpiritu auzoan, eta asteazken eta larunbatetan irekitzen dute. "Kanpaina egin genuen eta 12.000 euro lortu genituen saltokirako beharrezko materialak es-

kuratzeko", dio Libiaren. Denda irekitzearekin batera, Otsokopek 100 bazkidetik 400 bazkiderako jauzia ere eman zuen. Kide guztiek hartzen dute parte elkartearen erabaketan, eta hileroko hiru ordu eskaini behar dizkiote Otsokopen funtzionamenduari: saltokian, eskariak egiten... Bitartekaririk ez egoteak ekoizleak duinki ordaintzeko, eta aldi berean, produktuak prezio apalean eskaintzeko aukera ematen die.

Proiektu zabalago baten hasiera

Otsokop proiektua egun jada martxan duten dendatik harago doa: supermerkatu txiki bat irekitzea da beraien helburua, eta horretarako elkarteari kooperatiba forma ematea erabaki dute biltzar nagusian. Egun nagusi den multinazionalen hipermerkatu ereduaren aurrean, lekuko ekoizpenak eta elikagai ekologikoak eskainiko dituen alternatiba izan nahi du proiektuak, eta horretarako ari dira lanean.

Badoaz ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko bideak laburtzen dituzten guneak eta proiektuak sortzen. Kalitatezko elikagaiak eskainiz, eta modu kooperatibo eta parte hartzailean lan eginez. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Otsailak 8: Hendaia

Mugaz gaindiko gizarte ekonomiaren jaia. 16:30ean Les Varietes zineman.

Otsailak 8: Tutera

Nafarroako estepei buruzko hitzaldia. Antonio Pérez-Nievas biologo eta Ekologistak Martxaneko kidea mintzatuko da, 18:30ean, Rúa Gizarte Etxean.

Otsailak 8: Gernika

Baserri biziari eusteko lanak, nekazaritza sindikalizazioaren historia bat liburua aurkeztuko du Jose Anjel Aldai egileak. 18:30ean Astran.

Otsailak 8: Donostia

Astronomia ikastaroa. 19:00etan Aranzadi Zientzia Elkartean.

Otsailak 28: Iruñea

19:00etan Errotxapeako Ingurumen Heziketarako Museoa, Landareak Lantzen gida-liburua aurkeztuko du Jakoba Errekondok.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

azoka

Gure Errepublikan eman eta hartuz, denok ongi bizi gaitzen elkar zaintzen dugu. Sartu Azokan eta ikusi ARGIA Jendeak komunitateari musutruk eman dizkion gaiak. Oraindik ez bazara ARGIAkoa, oraintxe duzu egiteko aukera.

Dagoeneko erabiltzen ez ditugun gauzak, edo norberak etxean, lanean, militantzian egindakoak ARGIA Jendeari emateko aukera dugu. ARGIAko komunitatearen arteko harremanak bultzako ditugu horrela. Indartu dezagun indartzen gaituena!

www.argia.eus/azoka

ZERUKO ARGIA SUTONDOAN ARGAZKIA

1925ean Juan Bautista Larreta Andoaingo Azelain etxeko nagusiak, Azelaingo jaun-txoa ere deituak, ateratako argazkia da; orduko Zeruko Argiak berak eskatuta. Baina nortzuk dira ARGIA eskuetan duen mutikoa eta bere inguruan dituenak? Nori ari zaio irakurtzen astekaria sutondoan? Andoaindarra da argazkian ageri den familia ere, Oiartzabal familia.

- **Neurriak:** 70 cm x 52 cm.
- **Kopurua:** Honelako 7 argazki-poster ditugu ARGIA Jendeari emateko.



ARGIA Jendearentzat musutruk

Komunitateak ARGIA Jendeari ematen dizkion beste gai batzuk:



Binilo bilduma

Hiru binilo hauen bilduma: Anje Duhalde, Su Ta Gar eta Zaramaren *Binilo-bala*.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Txapelketa zaharretako ARGIAren bertso onenen bilduma

Bost liburuxkako bilduma: Txapelketa Nagusia, Gipuzkoakoa, Araba-Bizkaikoa eta Nafarroakoa.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Txisteka Misteka 3 kasetea

1987an Kike Amonarrizek eta Joxe Ramon Galarragak kontatutako txisteen grabazioa.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Orain Azokan, ARGIA Jendeak nahi duguna eman diezaiokegu ARGIA komunitateari. Oso erraz egin dezakegu, argia. eus-en Azoka txokoan sartu eta "Eman" atalera joanda. Eta bestalde, komunitateak ematen duenetik nahi duguna har dezakegu ARGIA Jendea garenok. Sartu argia.eus-en Azoka atalean eta ikusi zer hartu dezakegun. Bi astez behin, hemen ezkerrean dugun Azoka orrira ekarriko ditugu ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak.

AZOKAK EMATEN DUEN AUKERA BERRIA

Eman eta har ezazu



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

"Hemendik aurrera ARGIA Jendeak eman eta hartu ahal izango du gure Azokan nahi duena, dirurik edo beste edonolako gairen trukezik gabe. Komunitateari albistea ematea komeni da". Horixe da orain egun batzuk jaso dudana mezua. Eman eta hartu. Badakit Azoka berria martxan dela argia.eus-en, jakinaren gainean nago zerbait diru-truk erosi ahal izateaz gain norberak eta edozein eragilek edozer jar dezakeela bertan salgai... Baina musutruk eman edo hartzearen kontu hori... Xehetasun gehiagoren bila deitu dut Lasarte-Oriara, ARGIAko hauei burua joaten hasi zaiela esateko argudio bila akaso.

ARGIA Jendearen, komunitatearen arteko harremana bultzatuko du, konfiantzan oinarrituta. Alegia, gure bizitzetan gustuko ez ditugun kandadu, giltza edo pasahitzik ez da izango hemen ere. ARGIA kideari ez zaio identifikaziorik eskatuko. Komunitateko partaideak nahi duena eskaini diezaiokie taldeari, edo beste kide batek emandako zerbait hartu. Ematerako orduan zer eskaintzen den eta zenbat adierazi beharko da, eta

gaiaren bila joan beharra ote dagoen ala bidali egingo den –bidalketa gastuak hartzailearen gain joango dira–.

Informazioa era librean denen esku-ragarri jarri, herritarrek informatzaile bilakatu, komunitatea ARGIA proiektuaren parte egin... Hori da filosofia, eta filosofia horixe bera ekarri nahi da Azokara ere, sistema komunitarioa. Eguneroko bizitzan dena ez da salerosketa edo trukea, eta normalean harreman ez ekonomikoek eusten gaituzte sendoen.

Tarifa finkorik gabeko harpidetza ereduak aurretik demostratu zuen ARGIA komunitatearen indarra. Bazen beldurra zuenik: "Bakoitzari nahi/ahal duena eman eta nahi duena jasotzen uzten badiogu ez al da jendea aprobetxatuko?". Ikusi den arte konfiantzan oinarritutako komunitatea gehiago dagoela emateko eta ARGIA bultzatzeko, aprobetxatzeko baino.

Eta orain, dei eta azalpen horiek jasota nahikoa argudio badut esateko ARGIAko hauei burua joan zaiela. Baina biba zuek, zoroak! Oraindik ARGIA Jendea ez denak motibo bat gehiago du zoroetxera batzeko! ■

Sarean arrantzatua

birasuegi #Koop #ESE
@birasuegi

Mila esker @argia zapaldu kontzienteen komunikabide komunitarioa izateagatik #ArgiaSariak

Paul Bilbao Sarria
@paulbilbao

Ederto ibili ginen #argiasariaketan. Zorionak irabazleei. Halere, sariak nortzuek hartuko dituzten zain egoten garen arren, @argiakoen hitzartzearen zain ere izaten gara. Aurten ere zorrotz eta zuzen

OlatuKoop
@OlatuKoop

Proiektu ezberdinek euren produktuak harreman justuetan saltzeko ataria jarri du martxan @argia-k. Atari digitalaren bidez, ekonomia eraldatzailean sortzen denaren erakusleho izan eta saldu eta erosteko aukera ematen du

CINCINNATUSETIK CINCINNATIRA




**Nagore Irazustabarrena
Uranga**
@irazustabarrena

Erroma, K.a. 458. Lucius Quinctius Cincinnatus (K.a. c.519-c.430) erromatar patrizioa lasai eta xume bizi zen bere etxaldean, lurra lantzen. Baina urte hartan, ekuoek erromatarrek eraso zituztenean, erasoja jasan zutenek Cincinnatusengana jo eta jarduera publikora itzultzeko eskatu zioten: diktadore izendatu zuten.

Garai hartako legeen arabera, diktadoreak sei hilabetez botere absolutua zeukaten funtzionarioak ziren eta garairik zailenetan izendatzen zituzten erabakiak hartzeko prozesua ahal zen neurrian arintzeko.

Izendapenaren berri jaso zuenean, goldea utzi, forora jo, ejertzitua bildu eta gudu-zelaira abiatu zuen. Ekuoak menperatu eta berehala, karguari uko egin zion, erabateko boterea behar baino gehiago erabili gabe, eta etxalde lasaiera itzuli zen. Edo horixe dio kondairak, behintzat. Erromatar Errepublikaren lehen urtetan jardun zuen Cincinnatus, baina ospea Inperioren garaian iritsiko zitzaion, diktadore laburra boterea gehiegikeriarik gabe erabiltzearen eredu bihurtu zutenean.

1783an, AEBen Independentzia Gerra amaitu zenean, gatazkan aritutako militar asko zer egin eta nola jokatu ez zekitela geratu ziren. Horietako batzuek Cincinnatien Elkartea izenekoa sortu zu-



Cincinatti 1802an, herria beste izen batez (Losantiville) sortu eta 14 urtera. Mende erdi inguruan 150.000 biztanle izatera iritsiko zen.

UC LIBRARIES

ten. Izena erromatar diktadorearen omenez aukeratu zuten, eta izaeran ere haren antza izan nahi zuten. Gudu-zelaian egin beharrekoa eginda, ez zuten militarrek bake garaian jarduera politikoa eragirik izatea nahi; Cincinnatusen egin bezala, bizimodu zibilaria heldu nahi zioten. Eta, hala, gerra kontuak utzi eta lursail berriak lantzeari nahiz herri berriak fundatzeari ekin zioten cincinnatien.

Ondorioz, Appalacheetatik mendebaldera gerora oso garrantzitsuak izango ziren herriak sortu edo zeudenak sustatu zituzten, hala nola Pittsburgh, Pennsylvanian.

Ohio ibaiaren ertzean, 1788an John Cleves Symmesek herrixka bat funda-

tu zuen, Losantiville izenekoa. Hurrengo urtean Fort Washington gotorlekua ipini zuten herrian eta beste urtebete geroago, 1790ean, Arthur St. Clair iritsi zen Losantivillera. Gerran jeneral eta maior izana, Cincinnatien Elkarteko presidente zen St. Clair herrira iritsi zenean, izena aldatzea erabaki zuen eta Cincinnati deitu zion, elkartearen eta, jakina, erromatar patrizioaren omenez.

Baina izena ez da Cincinnatik Erromarekin duen lotura bakarra. Ezagunak dira antzinako inperioko hiriburuaren zazpi muinoak; bada, Cincinnatik ere beste hainbeste muino ditu eta, horregatik, "zazpi muinoen hiria" ere esaten diote. ■



WISSAM NASSAR

Altxorra etxe atzeko patioan

Etxeko lorategian zulo bat egin eta altxor arkeologiko bat topatzea tarteka betetzen den topikoa da. Abdelkarim al-Kafarna gazte palestinarrek zulorik egin beharrik ere ez zuen izan. Bait Hannun-eko bere etxeko atzeko patioan, asetebez euria gogotik bota ondoren, ur guztia nora zihoan galdetu zion bere buruari. Harlauza bat altxa zuen eta

eskailera batzuk topatu zituen, eta eskaileren amaieran, bederatzi hilobi, lau metro inguruko sakoneran. Datazio zehatzagoaren zain, hilobiak erromatarrek dira, kristautasunaren hasierakoak eta, beraz, 2.000 urte inguru dituzte. Giza hezurrez gain, botozko lanparak eta zeramikazko pieza batzuk ere aurkitu dituzte Abdelkarimen patioan. ■



Gorputzak ehuntzen

*Miren Gaztañaga
'Stereo' antzezlanaren
une batean.*

AINHOA RESANO

"Genero praktikak" ikastaroa antolatu zuten urte hasieran Oiartzunen Ehuntze Sormen Espazioak eta Metrokoadroka kolektiboak. Gorputzetik sortu, gorputzetik hitz egin eta gorputzetik komunikatu daitekeela irakatsi zuten. Generoari buruzko diskurtso potolorik gabe, jolasa eta intuizioa bidelagun hartuta.



Mirari Martiarena Mitxelena
@mirariri



Oiartzungo Arraskularre kaleko 16an sormen espazio txiki bat dago. Bertan biltzen dira Idoia Beratarbide artistaren estudioa, Marodi Sorkuntzak eta Metrokoadroka Kolektiboa. Beratarbidek berak, sormen lantegiak eskaintzen ditu. Maria de Berardorekin antzezlanetarako jantzigintza eta diseinuko arropak zein osagarriak sortzen ditu, eta Metrokoadroka Kolektiboarentzat bulego eta egoitza ere bada. Sormenari tira egin eta iazko abenduan bi tailer antolatu zituzten, bata *Genero Praktikak* liburuan oinarritua eta Iratxe Retolazak gidatua, eta bestea Virginia Despentesen *King Kong teoria* liburuan oinarritua, Ainara Lasarekin. Ziklo horren barruan sortu zuten “Genero praktikak” izeneko lau eguneko ikastaroa.

Oiartzunen azken urteetan Antzerki-zale Taldeak sortutako mugimenduan egon da Metrokoadroka Kolektiboa. Herrian antzerki programazio sendoa sortu da eta publiko fidela lortu dute hilean behingo antzerki saioek. Momentu aproposa ikusi zuten “Genero praktikak” bezalako ikastaro bat antolatzeko, sormenera bideratua eta ez programazio hutsera.

Lau eguneko ikastaroan Miren Gaztañaga eta Ainara Gurrutxaga aktoreek gidatu zituzten goizetako saioak, Metrokoadrokako lagunek arratsaldeetakoak. Talde horretako kideak dira Idoia Beratarbide eta Oier Guillan. Kolektiboan sormenari garrantzi handia ematen diote eta laborategi moduko bat egin nahi zuten “Genero Praktikak” ikastaroaren bitartez. “Hasieran beldur ginen ea jendeak izena emango zuen edo ez, eta ondoren ea ezezkoak eman behar ote genituen”, dio Beratarbidek. Oiartzungo jendeak eta inguruetaokoak parte hartu zuen eta poztu ziren gaiak herrian interesatzen zutelako.

Guillanek azpimarratu du talde anitzia bildu zela, “antzerkian esperientzia gutxi zuena, esperientzia handia zuena eta inoiz aritu gabea, baina gaia interesatzen zitzaiena”. Aniztasun hori, ordea, ez zen oztopo izan, “hasieratik erabaki genuen Miren Gaztañagak, Ainara Gurrutxagak eta Metrokoadrokako kideok, hori onartzea eta erabiltzea. Dementzat lekua dagoen energia sortzea. Guk antzerkia ulertzeko dugun modua jolasetik abiatzen delako eta jolas mota asko daude taldea eta energia berezia

sortzen dutenak”. Gaztañagak zabaldu zituen Oiartzungo Antzerki taldeko lokaleko ateak eta ikastaroa. Berarentzat “pribilegioa izan zen lehen egunean klasea ematea. Denok batera hasi ginen elkar ezagutzen eta makinaria berotzen. Adin eta perfil oso desberdinetako jendea zegoen, baina guztiek zuten lanerako gogoia”. Taldea deskribatzean bat egiten du Gurrutxagak: “Eskuzabaltasun handiarekin hartu zuten parte proposamen guztietan, eta hori pasada bat da!”.

Diskurtsotik gorputzera

Generoa beti egon izan da Metrokoadroka Kolektiboaren sortze eta ehuntzeko prozesuen erdigunean. “Generoaren inguruko gaiez zipriztinduko ditugu ariketak, baina diskurtsorik inposatu gabe, norberak bere begiradaren ekarpena edin dezan” esaldi hori azpimarratu zuten parte-hartzaileei hasi aurretik banatutako orrietan.

Topaketa hauen tituluak asko kontestualizatzen zuen egoera. “Erabakietako bat izan zen parte-hartzaileak askeago sentitzeko klaseak ez arrazionalizatea” dio Gaztañagak. “Proposatutako ariketek beren barruan bazutelako hori eta



ez genuen diskurtsoetan erori nahi". Nola lantzen da generoa antzerkian gorputzaren bitartez? "Egiten dugun orok gorputzarekin du erresonantzia eta gorputzak momenturo du kontaktua generoarekin edo eraikiak diren hainbat kontzepturekin. Zer landu nahi duzun argi baldin baduzu, gero jolasean sartu eta emaitzak bakarrik etortzen dira". Gorputzaren presentzia gutxietsi egiten dela iruditzen zaio Gaztañagari eta hitzena baino harago doala dio. "Izugarria da gorputzak bere horretan kontatzen duena. 10.000 sekretu, poz, desio eta pena konta ditzake".

Gurrutxaga antzerkia ikasten hasi zenean rol oso jakinak izaten zituen, genero eta adinaren araberakoak. "Nire paperak beti ziren ama, emazte, alaba, moja, prostituta... Urteak pasata, beste antzerki ikuskera zabalago bat deskubritu nuen eta gizon ez ezik, animalia edo natur elementu ere bihurtu nintzen. Eztandarazi egin zuen horrek nire buruarekiko ikuskera. Oholtzan nagoeanean lehenik eta behin gorputz bat naiz, ez emakume bat. Horregatik uste dut garrantzitsua dela gorputzetik pasatzea, eraikuntza kulturaletatik harago joa-

Ezkerrean, 'Genero praktikak' ikastaroa. Ezaugarri hau nabarmendu du Ainar Gurrutxagak: "Teoriak ondo daude, eztabaidak ere bai noski, baina antzerkiaren bitartez gorputzu egin daitezke bizipenak. Erdian, Metrokoadroka Kolektiboa 'Mr Señora' antzezlanaren ematen. Lerro hauen gainean, parte-hartzaile bakoitza sormen pieza bat eskaintzen.

ARGAZKIAK: METROKOADROKA

teko giltza delako". Antzerkiak genero lanketari egin diezaizkiokeen ekarpenez ere hitz egin du Gurrutxagak. "Begiradak zabaltzea, aukerak irekitzea, ezezagunari leku egitea... Antzerkian bizipenak du garrantzia, lehen pertsonan (eta ondoren kolektiboki) bizitzen den esperientziak. Beraz, norbere mugak topatuz, beste forma batzuk bilatuz, estereotipoak hautsiz, gure gorputzak eraldatuz, ausartuz, jolastuz... eskemak hausten ditugu. Teoriak ondo daude, eztabaidak ere bai noski, baina antzerkiaren bitartez gorputzu egin daitezke bizipenak". ■

PARTE-HARTZAILEEN BIDAIAK

Parte eta bidaiari izan ziren Eñaut Retegi, Luix Mitxelena eta Pili Arbelaitz oiartzuarrak. Retegik 34 urte ditu eta antzerkizalea da. Metrokoadroka eta Ehuntzek abenduan antolatutako bi tailerretan parte hartu zuen eta honen izenburuan "generoa" irakurri, eta gaian gehiago sakontzeko gogoia zuenez, izena eman zuen. "Ikastaro teorikoa espero nuen, irakaskuntza tradizionalan oinarritua". Generoaren gaia non zegoen galdetzen zuen hasieran, "baina lau egunetan zehar joan zen guztia forma hartzen". Astearen bukaeran parte-hartzaile bakoitzak sormen pieza bat egin zuen: "Gauza oso desberdinak sortu genituen eta oso aberatsak izan ziren. Irakasleek teklak egokiak sakatu zituzten gugandik aberastasun hori lortzeko". Generorik gabeko antzerki bat ikasi izanaren sententzia da, gorputzean oinarrituta.

Luix Mitxelenak 16 urte ditu, Oiarzongo gazteen antzerki taldeko kidea da eta etorkizunean antzerki ikasketak egitea da bere asmoa. Antzerki tradizionala landuko zutela uste zuen, "ez nuen sorkuntza lantzea espero"; Horrekin asko gozatu zuela dio, sortzearekin eta pertsonaia berriak asmatzearekin. "Hutsetik sortzen hastea zer den ikasi dut". Ez dio horretarako bakarrik balio izan: "Konturatu naiz gorputzak ere hitz egiten duela, begirada batek edo mugimendu batek, eta horrela ere komunikatu daitekeela".

Pili Arbelaitz Oiarzongo Txinalka helduen antzerki taldeko kidea da. Bere antzerki jardunari ongi etorriko zitzaio-lakoan eman zuen izena. Aurretik bidalitako etxeko lanak irakurtzerakoan pixka bat beldurtu zela esan du, baina egin ahala "erraz osatu nituen ariketak eta eroso sentitu nintzen". Txinalkan hainbat sormen ariketa egiten dituzte eta ez zitzaizkion oso arrotzak egin proposatutakoak. "Goizetan Mirenekin eta Ainararekin asko gozatu nuen". Arratsaldetan egindako sormen ariketetan bat aukeratu behar eta hilerrian barrena emandako paseoa aipatu digu. "Niretzat jende berriarekin eta adin desberdinekoekin egotea ederra da".

Iritsi dira, eta geratzeko asmoz...

TELESAIL ELKARRERAGILEAK

Ikus-entzunezko produktuen arteko lehia geroz eta bortitzagoa izanik, oso konplikatuak bilakatzen ari da azken urteotan zinema, telebista edo Interneteko edukiekin jendea harrapatu, harritu eta fidelizatzea. Formatu eta plataforma berriek leihoak ireki dituztenetik, ordea, telebista eta telesailak kontsumitzeko modua eta arauak aldatu dira. Formatu berriak sartu dira pixkanaka gure etxeetan eta, horien artean, azken hilabeteetan geroz eta indar handiagoa hartzen ari den bat. Gu geu fikzioaren protagonista zuzen bilakatzen gaituzten “telesail elkarreragileak”.



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

Idea hau, formatuaren barruan berri-tzailea izan arren, *Gamebook* moduan ezagutzen ditugun liburuetan ikusi genuen lehen aldiz, “aukeratu zure abentura” ezagunetan adibidez. Irakurleak, eleberriaren barruan zeuden tramen arteko aukeraketa egin zezakeen, harturiko erabakiaren arabera amaiera batera edo bestera iritsiz. Pantaila txikian, izen ofizialik ezean, telesail interaktibo edo elkarreragile bezala ezagutzen dira. Paperezko istorio horiekin alderatuz, diferentzia nagusia da liburuetan trama guztiak aldeztu aurretik idatzita daudela, mugiezinak dira nolabait. Serieetan ordea, audientziaren parte-hartze, arrakasta eta erantzunaren arabera aldatzen joan daitekeen zerbait izaten da. Honek, telebistaren arau klasikoan aldaketa erradikala dakar. Lehen, igorlearen eskutik, hartzaileak norabide bakarrean eta era itxian jasotzen zuen mezu bat (telesaila) izaten zen; orain, erreminta berri honek

ahalbidetzen du gustu eta lehentasunen arabera, erabiltzaileak bere ibilbidea diseinatu dezakeen joan-etorriko bide bat.

Ekoizpen berri hauekin batera eskutik doazen ezinbesteko tresnak Internet eta sare sozialak izanik, *target* konkretu bati egokitzen jakitea ere ezinbestekoa bilakatu da. Adin guztietarako moldatzen den formatua izan arren, nerabeen artean ari da izaten arrakasta handiena. Horren adibide nabarmenena Norvegia sekulako zalaparta sortu duen *Skam* telesaila. 2015 urtean NRK telebista publikoak mugarrira ezarri zuen ekoizpen honekin. Zein izaten ari da nerabeei zuzenduriko ekoizpen honen arrakastaren funtsa? Lehenik, telebistaz gain, sareetan ere kontsumitzeko sortua izan dela. Bata bestearen euskarri bilakatu dute. Bata, bestearen laguntzarik gabe, herren geratzen da. Eta bigarren, fikzioak errealtatera salto egiten duela.

Istorioko pertsonaiek, fikziotik kanpo, audientziarekin elkarreragiten dute; sare sozial propioak dituzte, tramaren barruko bideo eta argazkiak errealtatean txertatzen dituzte. Audientzia gazte hori istorioaren barruan sartzen jakin izan dute, azken finean. Sorturiko zarata hain handia izan da, nazioartean sei *remake* prestatzen ari direla une honetan. Nordikoek *transmedia* narrazioaren olatu hori aprobetxatu nahian, 2017. urtearen amaieran, *Hvor er Thea?* ere estreinatu zuten.

Herrialde nordikoetatik kanpo ere adibide ugari topatu daiteke. Urtarrilaren 22an HBO telebista kateak, adibidez, bere azken miniseriea estreinatu zuen, eta hemen ere badirudi ez dutela atzean geratzeko intentziorik. Ekoizpenaren izenburua: *Mosaic*. Steven Soderbergh zuzendari ezagunaren lan berria. Doako aplikazio bat deskargatuz, ikusleak tramaren barruko hainbat erabaki hartzeko ahalmena izango du.



'Skam' telesail norvegiarra aitzindaira izan da mota honetako ekoizpenen artean.

Interneteko munduak gaur egungo ekoizpenetan duen garrantzia eta indarra *Stranger Things* telesail ezagunaren lehen denboraldian ere antzeman daiteke. Sare sozialetan *#JusticeForBarb* (justizia Barb izeneko pertsonaiarentzat) traola mundu mailako *Trending Topic* bilakatu ostean, ikusleek pertsonaia honekiko tratu duina eskatu zuten. Sortzaileak, iritzi guzti horiek kontuan hartu, eta saiatu dira pertsonaia horren etorkizunari beste ikuspuntu bat ematen. Twitter sare sozialak behartu du kasu honetan telebista elkarreragilea izatea.

Adibide konkretuez gain, plataforma digitalak ere hasi dira pixkanaka egoitzen. Netflix-ek, adibidez, umeei zuzenduriko lehen serie elkarreragileak sortu zituen iaz, *Buddy Thunderstruck* eta *Puss in Book: Trapped in an Epic Tale*. Etxeko txikiek ikusitako abenturei buruzko iritziak partekatu ditzakete, zer gustatu zaien gehien, gutxien eta

» *Skam* telesailak ezarri du mugarrria Europa iparraldean: telebistaz gain sareetan ere kontsumitzeko sortua izan da eta fikziotik errealitatera eraman dute

» Netflix eta HBO ere hasi dira mota honetako telesailak ekoizten: ikusleek tramaren garapenari buruzko erabakiak hartzea erraztu dute

abar. Ez pentsa, dena den, eduki berezi hauek sortzea erraza denik. Gidoia lantzerako orduan korapilatsuagoa bilakatu baitaiteke lana; eta produkzio aldetik erronka handiagoa planteatu dezake. Dena garestiagoa bihurtzen dela, alegia.

Garaiak aldatzen ari dira, eta nazioarteko belarriek entzuten jakin izan dute "mugimendu" berri hau eragiten ari den zarata. Pentsa noraino heltzen ari den: normalean, pantaila txikiko fikzioan nahiko atzean ibiltzen den Espainiako Estatuan ere, hasi direla gauzak astintzen. *Si fueras tú* izan da *transmedia* narrazioa erabiltzen duen Espainiako lehen telesail interaktiboa. Astero telesailaren ikusleek hautatzen dute bozketaren bitartez saioaren zenbait tramak nola jarraitu behar duten.

Eta hemen aldiz, betiko moduan, beste alde batera begira gaudela dirudi. Noizko Euskal Herrian garai berriei egoitzen diren euskarazko telesailak? ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Nola kontatu “ni”-a



Amaia Alvarez Uribe

Hiru ikuspegietatik begiratuko diogu Garazi Arrula Ruizek berriki euskarara ekarri duen Amelie Nothomben *Hodien metafisika* liburuari: idazlearena, irakurlearena eta pertsonarena.

Idazlearen ikuspegitik, nola osatuko zenukete zuen autobiografia? Pil-pilean dagoen eta gure literatur sisteman aldekoak zein kontra-koak dituen autofikzioa erabiliko zenukete? Noiztik aurrera hasiko zinategiaren zuen bizitzari buruzkoak aletzen?

Liburu honetan egileak bere bizitzaren lehen hiru urteak kontatzen dizkigu, autofikzioa erabilia. Hodi bat izatetik (likidoen iragazle hutsa izatetik) pertsona baten has-tapenetarako garaia ekartzen digu orriotara (zentzumenen eta gorputzaren esnaera eta lehen aurkikuntza eta pentsamenduak). Hori hirugarren pertsonatik lehen pertsonarako saltoa emanez egiten du eta gertaera eta go-goeta esanguratsuak tartekatuz.

Irakurlearen ikuspegitik, zer eskatzen diogu liburu bati? Beste ikuskera eta bizimodu batzuk ezagutzeko aukera? Gure gogo eta gorputzak astintzea? Egunerokotik ihes egiteko bide bat?


Japonian jaio den kontsul belgikar baten alaba da protagonista eta bi herri hauetako kultura agertzen da elkarrekin lehian: *Tintin*-en komikiak, *No* kantariak, historiako zenbait pasartek ere haien tartea izango dute edo jaio-berri baten begiradak urtarok nola hautematen dituen, umorea baliabide nagusi izanda.

Pertsonaren ikuspegitik, hiritar edo herritar deituko geniokeen rol sozialetik, zerk bihur-

Hodien metafisika AMELIE NOTHOMB

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz
Igela, 2017

Amélie Nothomb
idazle belgikarra
(Etterbeek, Brusela 1966).



tzen gaitu “ni”? Nola heltzen gara “ni” izatera? Eta nola uzten diogu “ni” izateari?

Bere lehen urratsak ematen ari den pertsonaia nagusiak bizitza eta heriotza ezagutuko ditu eta bere hitzekin azalduko dizkigu. Deskurritzen dituen gauzek sortzen dioten lilura kutsatuko digu erlijio kristaua edo mendebaldeko eta ekialdeko filosofiak bitarteko. Bere burua jainkotzat duen umegorri batek Unibertsoaren Lege nagusien berri emango digu.

Ipuin klasikoaren jatorrizko bertsioaren gordinetasunez agertzen zaizkigu Oteizarenak izan zitezkeen arima, hutsunea eta tunelaren ideiak izaki baten existentziaren hasieran. Era berean, haurtzaroaren desmitifikazioa egingo digu ahots narratiboak. Azkenik, egile honen lana euskaraz irakurtzeko hirugarren aukera hau ez galtzeko gomendatzen dizuegu. ■

» DISKOA

Jantzi elektrikoarekin



Joxi Ubeda Goikoetxea

Joseba Tapia trikitiarekin lotzea normala da, baina azken urteetan gitarrarekin ere aritu da. Esaterako, *Tximela kapitainaren izarrak* diskoa gitarra akustikoarekin egin zuen, eta *Besamotzak* lan berria gitarra elektrikoarekin grabatu du. Trikitiarekin musikari aparta da, eta gitarrarekin ere ederki moldatzen da.

Bere bakarkako ibilbidean sortutako 11 kantu gitarra elektrikoarekin interpretatu ditu. Kantu horiek *Tximela kapitainaren izarrak* (Zakurraren Biolina, 2013), *Eta tira eta tunba* (Zakurraren Biolina, 2010), *Real Politik* (Zakurraren Biolina, 2006) nahiz *Quebec, hamalau kantu independentziarako* (Gaztelupeko Hotsak, 1999) diskoetan, eta Koldo Izagirre idazlearekin osatu zuen *Apoaren Edertasuna* (Gaztelupeko Hotsak, 1998) diskoan plazaratu zituen.

Kanta politikak dira, eta lan berrian jantzi elektrikoarekin entzun daitezke, indartsuago, baina bizitasuna, zorrotasuna eta gatz eta piperra batere galdu gabe. Ondo gelditu dira gitarra elektrikoarekin, dotore, punteoekin eta bestelako marrazkiekin. Rock talde gisa. Horrela jotzen dute trikitia eta baita pasodoble, reggae, ska eta country kutsuko doinuak ere, modu natural batean.

Abestu eta gitarra elektrikoa jotzeaz egin, Joseba Tapia baxu elektrikoarekin eta eskusoi-nuarekin aritu da eta programazioaz arduratu, eta grabazio saioetan musikari hauen laguntza izan du: Iker Uriarte (jazpana), Iñigo Telletxea (baxu elektrikoa), Dani Narbarte (eskusoinua), Jexux Aranburu Txus (organoa), eta Maider

Besamotzak

JOSEBA TAPIA

Gaztelupeko Hotsak, 2017



Ansa, Andoni Tolosa Morau, Txuma Murugarren eta Bernardo Goietxe (ahotsak).

Besamotzak, diskoaren izenburua izateaz gain, Tapiak duela urtebete inguru martxan jarri zuen proiektuaren izena ere bada: Besamotzak taldea. Diskoan entzun daitezkeen kantak jendaurrean jotzen aritu da Iñigo Telletxearekin, Iker Uriarterekin eta Dani Narbarterekin.

Egunotan, Joseba Tapia & Besamotzak taldea diskoa aurkezteko emanaldiak egiten ari da, eta besteak beste, otsailaren 25ean Elizondon joko du. Joseba Tapiaren kantak jantzi elektrikoarekin bertatik bertara entzuteko eta gozatzeko saio ederrak izango dira. ■

Joseba Tapia musikaria
(Lasarte-Oria, 1964).



EZTABAIDAK LITERATURAREKIN XXI. MENDEAN

**“EUSKAL LITERATURA:
BI BEGIRADA, BI BELAUNALDI”**



2017ko Euskadi Literatura Saria jaso zuten bi idazleak elkartu zituen solasaldiak.

ARGAZKIA: IREKIA-EUSKADI.EUS.

Bi luma aske



Dabi Piedra

Eztabaidak Literaturarekin zikloaren 2018ko txandari ekiteko, apustu indartsua egin zuen Bilboko Bidebarrieta Kulturguneak urtarrileko saioan, euskal letretako bi autore handi gonbidatuta: Arantxa Urretabizkaia eta Asier Serrano, biak Euskadi Saria irabazi berriak. Goizalde Landabaso moderatzaile, literatura belaunaldiez hitz egingo zutela agintzen zuen egitarauak. Baina solasaldian gai batetik bestera jauzika aritu ziren, euskal literaturari ertzak bilatzen.

Literatura eta askatasuna, idazteaz bizi ahal izatea, noraino da posible gure herri txiki honetan? Hara ikusmina eragiten duen zalantza. Gai pisutsu horri ez zioten izkin egin gonbidatuak: “Gure artean ez da izango dozena erdi idazle baino gehiago idaztetik bizi dena”, bota zuen Urretabizkaia, hasi eta berehala. Baina bizitzeko beste lan bat duen idazlea izateak baditu abantailak: literatura askatasunaren esparrua da bera-

rentzat, ez baitago dirua irabazi beharrraren menpe. Eguneroko ogia beste bide batzuetatik bermatua duenez gero, Urretabizkaia libre sentitzen du bere burua. Askatasun hori izan ezean, ez omen zuen *Bidean ikasia* liburu saritua idatziko. Asier Serrano irakaslea da, eta idaztea beste atsegin du lan hori: “Maite dudana ofizio bat dut, maite dudana afizio bati eusteko”.

Hala ere, literaturak ez badu bizitzeko adina ematen, “jarraitutasuna” izatea zaila dela onartu zuen Urretabizkaia. “Orain emakume asko ari dira idazten, baina zenbat geratuko dira hemendik 20 urtera?”. Etorkizunean, baina, kontakizunetarako beharra egongo da: “Jendeak istorioak behar ditu, eta gaur egun ikus-entzunezkoetatik jasotzen ditughiengatik”. Bat etorri zen Serrano, “formatuak aldatu dira, baina idazleak beti egongo dira hor, sortzaile gisa behar bada, begira Amerikako Estatu Batuetan

EZTABAIDAK LITERATURAREKIN ZIKLOKO SOLASALDIA

Nor: Arantxa Urretabizkaia eta Asier Serrano.

Noiz: Urtarrilaren 16an.

Non: Bilboko Bidebarrieta liburutegian.

telesailetak gidoiak idazten dituztenen arrakasta”.

Hitzaldiak aurrera egin ahala, Serrano bere ibilbide literarioarekin lotutako pasadizo mordoa kontatu zuen. Idazten “izugarri sufritzen” duela aitortu eta gero, bere bibliografiatik liburu bakarra kenduko lukeela esan zuen: *Picassoren zaldia*. “Ez zen hura kaleratzeko momentua”. Askatasunari beste ikuspegi batetik heldu zion gero, belaunaldi bakoitzean sortzen diren “koadrillatxoetatik” aparte samar dagoela esanaz. Irakurle gisa ere, askatasuna nahi du: “Ez zaizkit gustatzen pasarte bakoitzean nola sentitu behar duzun esaten dizuten liburuak, ez dut orkestra zuzendaririk behar”.

Editoreekin dituzten gorabeherak, kritikariak... iritzi mamitsuz bete zuten Urretabizkaia eta Serrano ordu eta erdiko saioa. Entzuleok eskertu genuen idazleen jardun jakingarri eta zintzoa. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

POSTRE GOZO AHUL		PERTSO- NAIAREN ABIZENA NONGO ATZIZKIA		ADINA, BE- ZAINBAT	DANI BLANCO	ERREGELA, NORMA HILTZAILA		BOLA-JOKOKO PIEZA PERTSO- NAIAREN IZENA		ANDIA MEN- DIZERRAKO MENDIA ASKI LODI
OSPEA LANDA, SALBU						PAELLA PRESTATZEKO LABORE BILGOR				
		TITANIOAREN IKURRA JAINKOTIAR			GEHIEGI EGIA EZ DENA	SUTE FRUITU MOTA				
TAI GABE ... EGIN, AGURTU							NAGO IZENDATUA			
				ZEHARO, ARRAS MAKURTU				KILOAMPERIO SAGARRAK BILTZEKO MAKILA		
ATOMO MULTZOA	KOTXEZ BETE				ZEIN UNETA- RAKO MASUSTAK EMATEN DITU					ERAGIN ESAN- GURA DUEN PARTIKULA
						AHATEA UKAN				
GEHIEGIA, SOBERAKINA SAGARDOA EKOIZTEKO FRUITU								GALDETZAILE PARAGUIAKO ALDERDI POLITIKOA		
					PISUAK ZAKUR				AREA FUSKAL FONEMA	
KIROLETAN KONTATZEKO UNITATEA OIHAL FIN						ANITZ URANIOA				
			URRUNTZERA BEHARTU							

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	6			2				
1		3			8		7	4
			4		3	9		5
6		4	5					
					2	8		9
7		1	3		9			
9	4		2			5		1
				4			9	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Haritxo, filamentu.
2. Uda.
3. Nafarroako.
4. Jantzi dotore.
5. Otzara handia.

Ebazpenak

2	7	6	9	4	1	7	8	3	5
1	1	5	9	7	7	8	8	4	6
9	8	4	6	5	3	5	9	7	3
6	4	8	2	2	5	1	5	1	7
8	1	2	2	6	3	4	9	6	7
6	9	4	5	8	7	1	2	3	3
2	8	7	4	1	3	9	6	5	1
1	5	3	6	9	8	2	7	4	4
4	6	9	7	2	5	3	1	8	8

Nafar, 4. Traje, 5. Zarea.
1. Zuntz, 2. Udara, 3.

I	Z	V	A	N	U	R	U	L	L
Z	I	N	U	V	A	O	L	N	L
V	K	T	V	H	R	V	G	V	S
R	Z	V	I	N	V	R	O	S	
V	I	T	P	V	L	A	K	O	M
K	O	Z	I	O	N	Z	O	L	O
K	T	V	B	V	R	E	S	L	O
Z	I	N	V	N	G	V	N	E	L
I	V	L	D	I	L	S	L	I	V
Z	O	R	R	V			V	N	O
E	L	V	A	E			L	V	K
L	B	V					S	P	

Bel Olid. Ezbidearen kontra



Itzultzailea, idazlea eta parekidetasunaren aldeko borrokaren ikur da Bel Olid (1977, Mataró, Herrialde Katalanak). Hamar liburutik gora publikatu ditu eta 2015az geroztik Hizkuntza Katalanaren Idazleen Elkarteko presidentea da. 2017ko abenduaren 21eko hauteskundeetan CUPeko zerrendetan aurkeztu zen.

“Sortzaileon ardura da mezu normatiboak haustea”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

Literatura lanabes

“Matarón jaio nintzen duela 41 urte. Txikia nintzenean amak 14 orduz lan egiten zuen jostunen lantegi ilegal batean. Beti pentsatu izan dut begi onez ikusita ez zegoen testuinguru hartan koxkortu izanak oparitu didala, beldurrik gabe, kexuka ibiltzera ohituta egoteko gaitasuna. Literatura lanabesa dut, gizarteek elkarbizitzeko ditugun zailtasunak miatzeko. Nire helburua ez da inoiz izan salaketa egitea, baina, egia da, idatzitakoak irakurtzean lan denek dutela denuntzia usaina. Funtsen normalizatuta ez dauden gaien inguruan idazten dut”.

Noiz eta nola piztu zitzaizun literaturarekiko interesa?

Irakurtzen ikasi nuenean. Den-dena irakurtzeko obsesio moduko bat sartu zitzaidan gorputzean; eta dena ez da liburuak bakarrik, baizik eta, kaleko kartelak, eta ikusten nituen letra oro. Libururik gabeko familia batean jaio nintzen, beraz, etxean genituen liburuak nireak ziren; kulturaz hitz egiten genuen baina literaturaz sekula ez.

Zeintzuk izan dira zure erreferenteak?

Eskolan eta institutuan ezagututakoak, gehien bat, eta handitzen joan nintzen heinean, neronek bilatzen nituen erreferenteak. Lehen hamabost urteetan modu desordenatuan irakurri nuen. Orain aldiz, interesatzen zaidana irakurtzen dut bakarrik.

Katalanaren Idazleen Elkarteko presidentzia kexuka ibili izanagatik eskaini omen zizuten. Zergatik?

Tira, betidanik kexatu izan naiz gustuko ez ditudan gauzak salatzeke. Beraz, ulergarria da ikuspuntu bera defenda-

tzen dutenen bozeramaile funtzioa eskuratzea. Hala ere, egia da kexak begi txarrez ikusten direla gaur egun, batez ere emakumezkoa bazara, irribarre egin eta isiltzera kondenatuta baitzaude.

2010ean Documenta saria irabazi zenuen *Una terra solitària* lanagatik. Nola eragin zuen horrek zure ibilbidean?

Oso garrantzitsua izan zen! Itzultzaile gisa lan mordoa eginga nuen ordurako, baina nik ez nuen hartu-emanik argitaletxeekin. Eskuizkribu bat bidaltzen banuen ez zuen inork irakurtzen. Beraz, niretzat lan bat publikatzea oso zaila zen ez bazen sari baten bitartez. Documenta sariak lanak argitaratzeko ateak zabaltu zitzaizkidan eta, bi urte geroago, Roc Boronat sariari esker publikatu nuen nire bigarren liburua, *La mala reputació*. Hirugarren lana publikatzeko ez dut saririk behar izan [barreak].

Zein da zure ustez emakumezkoen lanari kulturak aitortzen dion tokia?

Hainbat indizek erakusten dute kultura kontsumitzaileen artean gehiago garela



emakumezkoak. Berdina gertatzen da arte forma ez ezagutuen artean. Aldiz, ezagupena duten arte formetara jauzi egindakoa emakumezkoak desagertzen gara. Beste modu batera esanda, emakumeok gai gara egunero etxean sukaldean aritzeko, baina bost izarreko chefa izan nahi duenak gizonezkoa izan behar du. Tira, batetik jakina da emakumeok dugula zaintzarekin lotuta dauden jardunen ardura, eta beraz, ordu horietan guztietan kreatibitateko tarterik gabe gelditzen gara. Baina bestalde, erabat maskulinizatutako kanonak nagusi dira gurean.

Zenbateraino hobetu da egoera?

Egoera hobetu da baina martxa desberdinetan goaz. Legoa adibide bikaina da. Ni txikia nintzenean Legoa lauki karra-tuak ziren bakarrik. Gerora giza-figuretan bilakatu zuten, kolore guztietakoak, mutil edo neskentzat. Baina urteak pasa dira eta atzeraka goaz: mutilak eta neskak bereizi bakarrik ez, emakumezkoentzako Legoak arrosa kolorekoak dira orain eta, normalean, zainketarako

"Ni hobeto nago nire amarekin alderatuta, eta aldi berean, bera hobe zegoen nire amona baino. Objektiboki gertuago gaude berdintasunetik, baina borroka luzea izango da".

lanei lotutakoak. Egia da ni hobeto nagoela nire amarekin alderatuta, eta aldi berean, bera hobe zegoela nire amona baino. Objektiboki gertuago gaude berdintasunetik, baina borroka luzea izango da.

Zure azken obren artean dago *Alana i Alada*, maitasun erromantikoaren kontrako haurrentzako liburua. Zein izan da zure helburua?

Tira, nik ez nuen honen inguruan idatzi nahi, baina atera zitzaidan. Hein batean, interesa dut urte askotan miatu diren ereduetatik haratago iristeko, eta baita ere, haur eta gazteei erakusteko komunikabideek, musikaren industriak, zinemagintzak eta gizarteak orohar errepikatzen dituzten harreman motetatik haratago errealitate zabala dagoela. Gaur egun otzantasunari lotutako ideiak indartzen ditu sistemak,

behin eta berriz, han-hemendik datozen narratiba guztien bitartez. Liburu honekin azpimarratu nahi izan dut edozein harremanetan bestearen askatasuna errespetatzeko garrantzia. Sortzaileon ardura da mezu normatiboak haustea.

CUPEko zerrendetan zinen A21ean. Kataluniako Parlamentuan sekula baino emakume gehiago dauden arren, Legebiltzarreko Mahaian bakarra dago.

2015ean Parlamentuak aho batez onartu zuen Berdintasunaren Legea hausten du. Lotsagarria da berdintasunaren alde bozkatu zuten alderdi politikoek beren hitza ez betetzea, eta ondorioz, zigortu beharko litzateke. Ez dago besterik. Legeak esaten badu emakumezkoen eta gizonezkoen errepresentazioak parekidea izan behar duela, legea bete beharra dago. Eta ez bada lehen botazioan ateratzen, parekidea izan arte bozkatuko dugu. Funtsean, agerian gelditzen da alderdi politikoek dituzten marra gorrien artean ez dagoela berdintasunarena eta beraz, gizon eta emakumeon arteko berdintasuna hautazkoa da. ■



Asier eta Iñigo probintzianismoa gainditzen duten koloreekin.

Iñigo Martinezek ondarrueraz idatzitako agur-mezua deszifratu du Beranduegiren egiptologia sailak

Hitzak euskarara pasa eta testua atzekoz aurrera irakurrita, ondorengoa dio gutunak: "Bazen garaia norbaitek nire klausela penagarria ordaintzekoa. Aspertua nengoen Real zuzentzen duten arma trafikatzailaz eta bere alboko kirol-zuzendari potrohandiaz, Anoetako harmailak betetzen ("bete" esan dut? Kar kar kar) dituzten pipa-jaleez eta egunkari saldunenaren soflamak bere egiten dituzten gipuzkoar astopikuen probintzianismo merkeaz. Klub handiago batera noa, harrobiko jokalaria oinarri dituen klub batera, erakunde publikoek gehia-

go mimatzen duten klub batera... nire hizkuntzan lasai asko hitz egin eta idatzi ahal izango dudana klub batera. Zeren eta bilbotarrei bost axola zaie euskara batuan ala euskalkian egin, gehiengoak ez dakielako zer den bata zer bestea. Baina Gipuzkoan, ioder Gipuzkoan, ziur kultura foroetan ere eztabaidatuko dutela agur-gutuna nire ama hizkuntzan idatzi izanaz. Eta nik, bitartean, haiek txio bat bidaltzeko behar duten denbora horretan, 1.000 euro irabaziko ditut. #Lantzoik. Tira, BMWa hartuta txitxi-potxin baneteguanba dzangaraka.

SAREAN ARRANTZATUA

Lider gorenaren betaurreko berriak



Bilboko erdigunea, Google Maps-en



Confebaskekin bildu ostean, EH Bilduberg Kluba deituko da Otegiren koalizioa

Arnaldo Otegi eta Maddalen Iriartek jakinarazi dutenez, joan den astean Confebaskekin izandako bilerak aldaketa garrantzitsuak eragin ditu ezkerreko independentisten artean. Hasteko, koalizioaren izena aldatuko dute: "Herri honetako enpresarioekin hasi dugun nor-


maltsan aro berriak aldaketa eskatzen digu", Otegi azaldu duenez. EH Bilduberg Kluba izango da izen berria. "Uste dugu euskal enpresariak nazioarteko enpresari handien pare jarriko liratekeela independentziari esker", adierazi du Iriartek. "Gure izen berriak urrats

bat eman nahi du norabide horretan". Confebaskeko buruek ez du oraindik iritzirik eman izen aldaketaz, aste honetan bereziki lanpetuta baitaude odola ateratzeko kanpainarekin. "Langileei odola ateratzeko kanpainarekin", zehaztu dute patronaleko iturriek.

Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO AGENDA



Hemen duzu urte osoan
egin beharreko lanen
egutegia, **saso**i bakoitzari,
hilabete bakoitzari eta
ilargialdiari lotuta:
baratzean, fruitu arboletan,
lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin
ditugun jasotzeko aukera
ematen du agenda honek.

**LIBURUA
ESKURATZEKO***

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda



*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com